




Areetako Berantzagi dantza-taldeak urriaren 24ra arte luzatuko du iazko 50. urteurrena. ▶22

Bizkaian erbesteratutako andreen lekukotzak batu ditu idatziz Lucy Sepulvedak, Marivi Marañon eta Carmina Villalbagaz batera. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



28. zenbakia

2015eko
irailaren 3tik
irailaren 9ra arte

Getxophoto: abiatu dira bidaiak...



KULTURA GETXO

Folka dator Getxora!

Denera, 11 kontzertu eta hainbat jarduera egongo dira. Oskorrik domekan emango duen saiorako sarrerak agortu egin dira. ▶11



HERRIAK LEIOA ETA URDULIZ

Oraindino ere jaietan

Aste akabu honetan ere, jaietan murgiltzeko aukera egongo da Uribe Kostan. Izan ere, hilaren 4an, barikuan, txupinak jaurtiko dituzte Leioako Ondiz auzoan eta Urdulizen. Biek ala biek irailaren 13ra arte iraungo dute; hortaz, jaiegunak ez dira amaitu. Goza egizue azken txanpa! ▶6-8

URIBE KOSTAKO UDA
ARGAZKI-LEHIAKETA
Bozkatzeko garaia!



info +: 10. orrialdea

Erandioko 30 langabeturi

behin-behineko lana emateko, 600.000 euro inbertitu ditu Udalak ▶5

Leioako Mastixu Udal

Euskaltegiak eskaintza zabala eta prezio bereziak prestatu ditu ikasturte berrirako. ▶6

Sopelako Duetloi Txikia

egingo dute zapatuan. Irailaren 3ra arte zabaldu dute izen-ematea. Parte-hartzea doan da. ▶7

UK Gaztea programa

egitarau berriagaz dator ikasturte honetan: praktikak enpresetan, ikastaroak, zerbitzuak... ▶9



Egin, egiten gara

BATIRTZE
LERTXUNDI PEREA
Bilgune Feministako kidea

Egunerokoek ere axola dute

Aurtengo jaietan ia egunero izan ditugu eraso sexisten salaketak. Errealitateak beste behin erakutsi digu emakumeok jaietan nahi dugun lekutik eta nahi dugunean libre mugitzeko aukerarik ez daukagula. Gorai-patzekoa da hala ere, erasotzaileri aurre egin dieten emakume kopurua, biktima babesgabeen paperetik ateraz eta erasotzaileri beti nahi dutena ez dutela lortuko erakutsiz. Nabarmena izan da ere herritarren inplikazioa erasoak ekidin edo salatze-ko garaian.

Badirudi, geroz eta herritar gehiago kontzientziatuta gaudela matxismoaren biolentzia gure bizitza eta kaleetatik at egon behar duenaz. Hala ere, tamalez, matxismoaren erroak kanporatzeari uko egiten diogu. Zerk eramaten du erasotzailer batek bere burua emakume bat erasotzeko eskubidearekin ikustera? Zerk eramaten gaitu eraso batzuk justifikatzera edo garrantzia kentzera? Egunerokoan pairatu edota praktikatzan dugun matxismoak. Gasteizen emandako erasoak justifikatzen dugunean «tipoak mozkortuta zeuden», «lekuz kanpoko komentarioak ziren, ez erasoak», edo besapean ileak daramatzan emakume bati depilatzea exijitzen dutenean, pertsona bat beste baten gainetik egotera eramaten dugu, sexu-genero sistema hierarkikoa eraiki/mantentzen dugu. Hau guztia patriarkatuaren makinaria hiltzailearen parte da, ez dira gertaera isolatu eta zentzugabeak.

Jule Goikoetxeari irakurritako hitz batzuk datozkit burura, «diskurtsoak soilik ez du bizitza bizigarriagoa egiten», praktika beharrezkoa da honetarako.

Ondokoen bizitzen jabe izango ez diren pertsonak hezi behar ditugu, baina baita ere, egunero inposatzen zaigun biziera zurrutetik urrunduko den jendea. ◀

Getxo

Emakume etorkinen programa prest dago

Egitasmoaren edizio berrirako izena emateko epea zabaldu dute daborduko. Saioek urritik abendura iraungo dute.

Joan den hilaren 1ean zabaldu zuten Emakume Etorkinentzako Topaketa eta Prestakuntza Programaren edizio berrirako izena emateko epea. Emakume etorkinei begirako egitasmoak, horiei laguntza eta elkartasun-gunea eskaintzeko asmoz sortu zen. Era berean, gaur egun dauden eskubideen eta baliabideen berri ematea, eta osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta norberaren zainketa eskaintzea dira antolatzen diren doako tailerren helburuak.

Programa Cony Carranza Castro soziologoak dinamizatuko du, eta gai desberdinei buruzko hainbat adituk ere hartuko dute parte. Tailerretan jorratuko diren gaien artean honako hauen gainera egingo dute berba: migrazio-prozesua, amatasuna bizi-



Saioak Martikoena kaleko 16 zenbakian dagoen Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan izango dira.

tzeko era berriak, laneko eskubideak, sexualitatea emakume gisa, indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta baliabide publikoak eta pribatuak. Programari amaiera emateko, EAEko emakume etorkinen beste talde batzuek topaketa egingo dute. Saioak

bi zapatu behin izango dira, urritik abendura artean, 17:00etatik 20:00etara, Algortako Martikoena kaleko 16. zenbakiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan. ◀

izena emateko: getxo.eus/eu/inmigracion
harremanetarako: mujeresmigradas@getxo.eus

Gobela ikastolako kide ohiak hilaren 19an batuko dira

Gobela ikastolak 50 urte bete ditu gaurten, eta urtemuga hori ospatzeko, hainbat ospakizun egiten dabiltza urte osoan zehar. Hori horrela, hurrengo hitzordua irailaren 19an egingo duten bazkaria izango da. Arduradunek azaldu dutenez, ikastolaren parte izan diren guztiak gonbidatuta daude bazkari horretara, «ikasle, irakasle, langile...». Hori horrela, ziur asko egunero-

ko eta aspaldiko lagunakaz elkartzeko aukera paregabea izango da aipatutako hitzordua. Bazkaria hilaren 19an izango da, zapatua, Algortako Fadura erretegiaren, 14:30ean. Bertaratu nahi dutenek 16 euro ordaindu beharko dituzte; halaber, norbanakoaren datuakaz ordainagiria bidali beharko dute antolatzaileen emailera. ◀

harremanetarako: gobela5ourte@gmail.com

Udan jazotako eraso sexistak salatu dituzte Algortan

Azken boladan Getxon jazotako eraso sexistek sumina piztu dute auzotarren artean. Abuztuan bakarrik, gutxienez lau emakume eraso sexistak pairatu izana salatu dute, tokiko eragile feministek jakinarazi dutenez. Horren aurrean, berrito ere, hilaren 2an, beltzez jantzitako hainbat emakume San Nikolas plaza hartu zuten «Women in Black» ekintzaren baitan. ◀



Begoñako galeriak bisitatzeko aukera badago oraindino

Abuztuak ihes egin digu, baina oraindik ere badago zer egiterik uda amaitu baino lehen. Aukera guzti horien artean, Getxoko Begoñako galerien bihotz-barruak ezagutzeko bisita gidatuak ditugu gurean, iraila amaitu bitartean monumentu hori bisitatzeko aukera egongo da-eta. Ibilbide horien bitartez, eraikin adierazgarri horrek gordetzen dituen sekretu ezezagunak ezagutzeko aukera dago, lekuaren historiari, bere pintura eta esangurari, eta bere sinbolismoari erreparatuta; izan ere, Euskal Herriko XIX. mendeko historia azaltzen laguntzen duen gunea da. Modu berean, Getxoko Udalak eta EHUK galeriak berreskuratzeko gauzatzen dabiltzan proiektua eta horren inguruko lanak ezagutu ahal izango dira. Euskaraz izango diren hurrengo bisitak honako egunetan izango dira: hilak 5, 13:00etan; hilak 10, 12:00etan; hilak 13, 13:00etan; hilak 18, 13:00etan; hilak 24, 12:00etan; eta hilak 27, 13:00etan. ◀

Lekua gordetzeko: 944 910 800

Getxo

Eztabaida amaitzear?

Gune antiautoritarioak erreleboa bilatzeko bilera irekia egingo du irailaren 10ean, 19:00etan.

Zazpi urteko ibilaldiaren ostean, Algortako Eztabaida Gune Antiautoritarioako kideek proiektuari amaiera ematea erabaki dute, «aspaldian motibazio eta energia higadura handia eragiten ziguten zenbait dinamika arrastaka generamatzan-eta», azaldu dute. Eskualdean kontzientzia kritikoa garatzeko helburuagaz abiatu zuten proiektua, herri-mugimendu ezberdinetan parte hartu ostean. Hortaz, eduki sozial eta politikoa zuen materiala saltzeaz gainera (liburuak, fanzineak, diskoak...), Eztabaida Guneak berbal-di ugari eta bestelako ekimenak antolatatu ditu bere egoitzan, «ikuspuntu



Eztabaida Guneak 2008an zabaldu zituen atea, kontzientzia kritikoa garatzeko helburuagaz.

antikapitalista batetik». Eztabaidako kideen arabera, jendez inguratuta egotea «beharrezkoa» da proiektu kolektibo bat garatzerakoan, eta horixe izan da euren «gabezia nagusia». Izan ere, kanpoko jendearen inplikazio eskasak lokalaren kudeaketa osoa kideen esku

egotea eragin du, eta euren helburuetatik aldentzera behartu ditu horrek. Hala ere, ez dute amore emango, eta balizko errelebo bat bilatzen ahaleginduko dira. Horretarako, bilera irekia iragarri dute hilaren 10erako, eguena, 19:00etan, egoitzan bertan. ◀

Txorimaloren 10 urteak ospatzeko prestaketak hasi dira

Txorimalo gaztetxeak 10 urte egingo ditu zazpi hilabete barru. Algortan hamarkada betetzen duen lehenengo gaztetxea da; hori dela eta, «zerbait handia» egin gura dute urtemuga ospatzeko. Horretarako, urteurrena prestatzen hasteko lehenengo bilera irekia egin zuten hilaren 2an. Hortik aurrera, astero batzea aurreikusten dute, «herri-ekimen indartsua sortzeko urteurrenaren inguruan».

«Badator hamargarrena» goiburuagaz, joan den urtean kontzertuak egiten hasi ziren 10. urteurreneko muntaketa eta egitarau osoa autogestionatzeko. Modu berean, udalerrian nongura itsatsita aurki daitezkeen pegatinak ere egin zituzten, hainbat banderolagaz eta facebookeko kontuagaz batera. Hurrengo ekimena hilaren 26an izango da: Fiachras eta Bide Lapurrak musika-taldeen kontzertuak, 20:00etan, 5 euroren truke. ◀

2015

Irailak 3 - Urriak 4

3 September - 4 October

Argazki Jaialdia
Photography
Festival

BIDAIAK
TRIPS

Antolatzaile / Organize

BEGIHANDI

Mantentzaile / Sponsors

Getxo

BA
DFB

BA
DFB

INSTITUT
FRANÇAIS

Estudios
Barrera

bbk

www.getxophoto.com



Getxo



Gazte algortarrak abuztu osoa eman du Brasilen MST mugimenduaren nondik norakoak zuzenean ezagutzeko.

«Elkartasunik gabe ez dago arrakastarik»

Jon Ormaza Atxa brigadista algortarrak Brasilen eman du abuztua Askapenaren bidez, MST mugimendua gertutik ezagutu eta bertako kideakaz esperientziak konpartitzeko.

Brasileko MST mugimenduak lurratik borrokatzen du, landen banaketa justuago baten alde, hain zuzen. Eurakaz batera egon da gazte algortarra.

Abuztua Brasilen eman duzu MST (Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra) mugimendua ezagutzen. Zertan datza mugimendua?

Mugimendu horrek lurratik borrokatzea du helburu. Brasilen lur-eremu gehienak latifundioetan banatuta daude, eremu handietan; hori dela-eta, latifundistek dute boterea, eta neka-

zari txikiak ez dute lekurik. Lurra era justuagoan banatzea da euren borrokaren helburua. Izan ere, euren arabera, latifundioen ereduak kapitalari eta sistema internazionalari egiten die mesede, eta ez bertako biztanleei. Hori horrela, nekazarien alde borrokatzen dute.

ENFF Florestan Fernandez Eskola Nazionalean eman zenituen lehenengo egunak. Zer ikasi zenuen han?

Lau egun egon ginen eskolan, Sao Paulotik 70 kilometrora. Ikusi genuen eskolan programazioa nahiko zehatza

eta oso beta zela. Egun bakoitzean ordutegi zehatzak genituen; formakuntza politikoa, teorikoa eta historikoa landu genituen, besteak beste, portugesez, noski! Brasil ezagutzeko eta bertan kokatzeko aukera izan genuen, baita MSTko historia eta lurratik borrokaren historia ezagutzeko ere. Mugimendu horren ustez, eta ezkerreko mugimendu askoren ustez, Brasilen historiaren ardatza lurratik borroka izan da, kolonizazio garaitik. Beraz, horrela analizatzen dute. Era berean, MSTaren historia, gaur egungo egoera, koiuntura politikoa

eta MSTaren erronka landu genituen. Oso aberasgarria izan zen.

Latinoamerikan eta munduan erreferente garrantzitsua izatea lortu du eskolak...

Bai, zentzu askotan. Herri-mugimenduan antolatuta dagoen gizarte-mugimendu baten eskola da, ez da estatu edo alderdi politiko batena. Herri-mugimendutik sortutako eskola da. Horren helburua MSTaren barruan formakuntza ematea da, unibertsitate-mailakoa zein formakuntza politikoa. Eztabaidagune ere bada; Brasileko herri-mugimenduko beste eragile batzuek ere hartzen dute parte bertan.

Zelakoak izan dira MST mugimenduagaz emandako egunak?

Eskolaren ostean, Riberao Pretora joan ginen. Bertan astebete eman genuen kanpaleku eta establezimendu batzuetan, bertako errealitateak ezagutzeko. Ondoren, Mato Grosso do Sulera joan ginen, Itamaratiko establezimenduan lau egun egiteko eta bertako bizitza ezagutzeko. Horren ostean, Mato Grosso do Sulen barnean, aukera izan genuen 1.800 hektareako hazienda inproduktibo baten okupazioan parte hartzeko. Bost egun eman genituen hor, bertako lanetan laguntzen; oso intentsua izan zen. Lan egiteko eta borrokarako molde eraginkorak erakutsi zizkiguten, eta hori oso garrantzitsua da arrakasta izateko.

Zer garrantzi du brigada internazionalistak urte urte antolatzeak?

Askapenako brigadek hainbat urte daramate funtzionatzen, beharrezkoak direlako. Gaur egun, mundu mailan dauden borroka-esperientziak eta askapen-prozesu ezberdinetan borrokan dauden herriak ez lirakeke bizirik egongo, elkartasuna egongo ez balitz. Ekarpinak beharrezkoak dira prozesua eraginkorrago izateko: harremanak landu, esperientziak jaso, eman, ikasi eta erakutsi. ◀

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illaeta kalea 1 ALGORTA

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluz z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº ES109014

SGS
Nº ES109015

hudean

Soropila Ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioa onarritze lanak eta enite lanak.

Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, organitzea, eguraztea, aratzea eta desirikatzea, beneklatzea, soropila goiztak eta belar goiztak tratatzea.

Inausketak
Hazteko, mantentzeko, benitzeko, zeharko opoingariak inauszea, esabateko inausketak.

Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Arpe ibaiertza 28A behelko solarria B12 lokala (ERANDIO) Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheka eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Erando



Pasa den uztailen hasi eta urtarrilean amaituko dira kontratuak.

Udalak 30 auzokide kontratatu berri ditu

Erandioko Udalak behin-behineko 30 lanpostu sortu zituen pasa den uztailen, «enpleguaren kalitatea hobetu eta Erandion txirotasun arriskua gutxitzeko asmoz», udal arduradunek zabaldu dutenez. Udal Gobernuak azaldukoaren arabera, «Erandioko Udalak apustua egin du udalerrian bertan lanpostuak sortzeko», herrian errolatutako 30 auzotari sei hilabetezko kontratua eginez. Horretarako arrazoiak honakoak izan dira: «herriarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoa» eta «azken urteotan egoera sozial eta ekonomiko zaila bizi izan dugula» kontuan hartzea. Lanpostuak pasa den ekainean iragarri zituzten: 4 garbitzaile, 4 lorezain, 4 eraikuntza-peoi, 3 igeltsero, 5 tailer-begirale edo orientatzaile, iturgin 2, elektrikari instalatzaile 2, margolari edota paperez-

tatzaile 2, arotz 2, eta aisialdi-begirale 2. Azken horiek herriko lonjetan dabil-tza beharrez, eta bitartekaritza-zerbitzuaz arduratzen dira. Behargin denen jarduna zazpi ordukoa da egunean, astelehenetik barikura. Datorren urtarilerara artekoak dira kontratuak.

Kontratazio prozesua

Erandioko Udalak 600.000 euro bideratu ditu kontratazio-prozesua egiteko. Hautagaiak, ordea, Erandioko Lanbide bulegoak aukeratu zituen, «parekatze automatikoaren bidez», azaldu dutenez. Lanposturen bat eskuratzeko ezinbestekoa zen langabetua izatea, Lanbiden izena eman izana, eta aurreko bi urtean horren moduko prozesuetan parte hartu ez izana. Bestalde, langabezian emandako denbora ere kontuan hartu zuten. ◀

Nagusientzako aisialdi ekimenak hastear daude berriz

Urtero legez, Erandioko Udalak irail honetan abiatuko du pertsona nagusientzako aisialdi-zerbitzua. Ekimen horren helburua gizon eta emakume edadetuak euren burua aktibo mantentzea da, gustukoak dituzten ekintzak eginez. Zerbitzu horrek hainbat jarduera eskainiko ditu, esaterako barreterapia, txangoak, mantenimendu-gimnasia eta abar. Interesatuak

hiru informazio-bilera izango dituzte aukeran: astelehenean, irailak 7, goizeko 11:00etan. Ordu horretan, batzar bana egingo dute Altzagako eta Astrabuduko ludoteketan, eta Astrabuduko nagusien etxean. Izena emateko epea, berriz, irailaren 18ra arte egongo da zabalik, Erandioko Behargintzaren eta Astrabuduko udal bulegoetan, goizeko 10:00etatik 13:00etara. ◀



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

I have a dream...

I have a dream, herrian lanegin. Bakioko portuan irakurri neban pintada, barre egin be. Egia da askorentzat lana izatea nahikoa izango litzatekela baina ona irudituta. Egoerak behintzat ez eban gazteen umorea ozpindu. Uda honetan lan eskaintza polita izan dot, birziklatzeko aukera ederra, dana alde... hori bai etxetik 120 kilometrorra. A8an gora eta A8an behera... eta bihurgune bakoitzean: I have a dream buruan... eta irribarrea ahoan. Egoerak ez nau ozpindu... bueno, hori agian besteren batek epaitu beharko du... Atzo portura hurbildu nintzen eta ez egoan ametsen inguruko erreferentziarik... ez dakit egoerak gaintitu ete dituen herriko gazteak ala lana topatzeagaz konformatzen diren ditxosozko A8 horren beste puntan bada be. ◀

OLGETAN SOLAS 2015

Familia giroan ondo pasatzeko kirol-jolasak

ERANDIOKO JAJETAN

ERANDIOKO/KOIA (ekainak 5)
FAOETA (ekainak 13)*
KUKULARRA (ekainak 28)
ARRIAGA (uztailak 5)*
GOIERRI (uztailak 12)
ASUA (uztailak 18)
ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 27)
ENEKURI (irailak 12)
LUTXANA (irailak 19)

INFORMAZIO/GEHIAGO:
www.erandiokeuskarazertitza.eus
euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128

Leioa



Moduluen prezioak murriztu ditu aurten euskaltegiak.

Mastitxuren eskaintza berezia

Mastitxu Udal Euskaltegiak 33 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, inoiz baino eskaintza zabala goagaz dator: modulu berriak, prezio murriztagoak, eta beste hainbat berrikuntza.

Azaldu dutenez, aste barruan 25 ordu, 10 ordu, 8 ordu, 7 ordu eta erdi, 5 ordu, eta 3 ordu eta erdiko eskaintza izango dute, goizez, eguerdiz zein arrastiz, «ordutegi malgutasun osoa eskainiz leioaztar guztiei heltzeko asmoz». Era berean, Pinueta, San Bartolome eta Lamiako auzoetako ikasleek «gela bereziak» izango dituzte eskura, euskaltegiraino joan behar ez izateko.

Ordu kopuru malguaz gainera, udal euskaltegiaren tasak ere murriztu dituzte, aurreko urteak alderatuta. Hala, 2014/2015 ikasturteko 330 orduko moduluak 396 euro balio zituen; aurten, berriz, modulu berbera 336 eurokoa izango da. Modulu guztietan ezarriko dute prezioaren beherakada hori, orduen arabera proportzioan. DBE diru-sarrerak bermatzeko errenta hartzen dutenek, oster, matrikularen % 10 ordaindu beharko dute, besterik ez. Hiru epetan ordaindu ahal

izango dira matrikula guztiak. Aurten, gainera, euskara ikasteko diru-laguntzak leioaztar guztiei eskainiko dizkie Leioako Udalak. Halaber, laguntza ekonomiko horren % 15 alde aurretik eskatu ahal izango da, matrikularen ordainketa errazteko helburuagaz. ◀

Modulu berriak

25 ordu, astean

Maila guztiak (astelehenetik barikura 08:00-14:00).

10 ordu, astean

B1, B2 eta C1 (astelehenetik barikura 08:00-10:00).

8 ordu, astean

A1, A2, B1, B2 eta C1 (astelehen, eguazten eta barikuetan 09:45-12:15 / astelehenetik eguenera 10:00-12:00 edo 18:00-20:00).

7 ordu eta erdi, astean

Astean 8 orduko moduluan bezala.

5 ordu, astean

B2, C1 eta C2 (astelehen eta eguazten 09:45-12:15 edo 18:00-20:30 / astelehenetik eguenera 10:00-12:00 edo 18:00-20:00).

3 ordu eta erdi, astean

A1 eta A2 (astelehenetik eguenera 14:30-16:15).

info+: www.euskaltegieleioa.com

Irailagaz, Ondizen txanda heldu da!

Udan jarraitzen badugu ere, irailaren etorreragaz batera udagoien giroa heldu da Uribe Kostara. Hala ere, euriak ez du jai giroa zapuztuko, hilaren 4an Ondizko festak hasiko dira eta! Arrastiko 06:00etan hasiko dira ospakizunak, txupinaren jaurtiketaz; ondoren, umeentzako puzgarriak eta tailerrak egongo dira. Jarraian, 20:00etan, sardinak dastatzeko aukera izango dute bertaratutakoek, indarrak batzeko eta, gero, Skimales eta Gora Herria taldeak dantzatu ahal izateko. Hurrengo egunean, zapatuan, lapiko eta koktel lehiaketek usaingozatuko dute auzoa. Eguerdian, kuadrillen bazkaria egongo da, eta iluntzean Runaway Bon Jovi bandaren omenezko taldeagaz astinduko dituzte gerrak, Galker disko-erromeriagaz eguna amaitu baino lehenago. Domekan, aukera egongo da 55. Bizkaiko Aurreku Txapelketa eta Ondizko VIII. Emakumezkoen Aurreku Txapelketagaz gozatzeko. Hurrengo egunetan, hainbat jardura ere egongo dira auzoan, hilaren 13ra arte, berbarako, nagusientzako luntxa, idi-probak, bakailao txapelketa, kalejirak, txistulariak... ◀

Ekitaldi batzuk

Irailak 4, barikua

18:00 Txupinaren jaurtiketa, eta umeentzako ekintzak.

21:30 Kontzertua, Skimales taldeagaz.

23:30 Erromeria, Gora Herria taldeagaz.

Irailak 5, zapatua

11:00 Lapiko eta koktel lehiaketak.

15:00 Kuadrillen bazkaria.

19:00 Umeentzako puzgarriak eta jolasak.

22:30 Kontzertua, Runaway taldeagaz.

23:30 Disko-erromeria, Galker taldeagaz.

Irailak 6, domeka

19:00 55. Bizkaiko Aurreku Txapelketa, eta Ondizko VIII. Emakumezkoen Aurreku Txapelketa.

Irailak 8, martitzena

13:00 Nagusientzako luntxa.

Irailak 9, eguaztena

19:00 Idi-probak.

Irailak 13, domeka

08:00 Bakailaoa bizkaitar erara txapelketa.

13:00 Leioako musika-banda.

13:30 Bakailao kazolen aurkezpena.

18:00 Sari-banaketa. Ostean, erromeria, Basajaun taldeagaz.

Berdintasuna eta errespetua sustatzeko lehiaketa, martxan

Udalak Elkarbizitzarako Kontaktuzun Laburren lehiaketa antolatu du, 12 eta 17 urte arteko neska-mutleiei begirakoa. Parte-hartzaileek 3-4 lagun ez osatutako taldeak egin beharko dituzte, eta talde bakoitzak ikus-entzunezko lan bi aurkeztu ahal izango ditu azaroaren 23ra arte. Lehiaketagaz batera, tailer bi egingo dituzte. ◀

info+: info@geuz.es / 675 715 661

Hilaren 4ra arte eman daiteke izena Kultur Leioako ikastaroetan

Irailaren 4ra arte egin dezakete leioaztarrek Kultur Leioako tailerretarako aurre-inskripzioa. Leku kopurua gaituz gero, zozketa publikoa egingo dute irailaren 7an. Hilaren 14tik 18ra bitartean, oster, matrikula ordaindu, eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Norbanako bakoitzak ikastaro bi egin ahal izango ditu gehienez. ◀

info+: www.leioa.net

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Taberna Berri
Sarrikobasa 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

TxakurTZ Zerbitzua
Zu eta zure txakurrak elkar oneratu behar dituzte! Bera oneratu eta bereziki komunikatzera laguntzen dizkizu.
LEHIZENENGO ITZAZORUA DONIA
Itzi y tu perro tienen derecho a entenderse! Nosotros te enseñamos a comprenderle y a comunicarle con él.
3ª PRIMERA CITA GRATIS!
serviciocanino@yahoo.es
tel. 688.687.073

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harrizteko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Sopela



Udaletxeko plazatik abiatuko da duatloia. © HIRUBI

Duatloi Txikia, zapatuan!

Txikienek ere lasterka egingo dute, oinez eta bizikletaz, zapatu goizean, Sopelako IV. Duatloi Txikian.

A dinaren arabera, egundo ez da goizegi kirola egiten hasiteko, eta zapatu honetan izango gara horren lekuko: Sopelako IV. Duatloi Txikia egingo da goizean, 10:30etik aurrera. Hirubi Sopelako triatloi-taldeak antolatu du, eta, mota horretako lasterketetan ohi denez, oinez eta bizikletaz lasterka egingo dute kirolari gazteek: urtebeteko umeetatik hasi eta 14 urteko gazteetara arte, zazpi mailatan lehiatuko dira. Kategoria bakoitzak urte biko adin-tartea hartuko du, eta ordu laurdeneko tartegaz abiatuko dira irteeratik, nondik eta udaletxeko plazatik.

Hala, nagusiak abiatuko dira lehenengo, hau da, 13 eta 14 urtekoak; eta

azkenekoak, oster, urtebete eta urte biko umeak.

Kategoria gehienetan, bizikletaren tartea gurgiltxo barik egin behar da, beheko maila bietan izan ezik. Horrela, 3 eta 4 urteko umeek, gura badute, gurgiltxoak eraman ditzakete bizikletan. Lasterkari txikienek, berriz, *molto* moduko bizikletakaz lehiatuko dira. Guztira, 350 partaiderentzako lekua dago.

Izena eman gura baduzu, adi ibili! Izan ere, irailaren 3ra arte ipini dute horretarako epea; izen-emotea doakoa da. Horretarako, mezua bidali behar da hirubi.triatloi@hotmail.com helbidera, ondokoak zehaztuz: izena, deiturak, jaiotze-urtea, gurasoen edo tutoreen izena, deiturak eta NA (aita edo amaren baimena izango da). Bestela, Kurtzio kultur etxean eta Abadesoloko igerilekuetan izena emateko orriak bete daitezke. ◀

info+: triatlonsopelana.org

Udalaren ordezkariak izendatuta, hainbat erakundetarako

Udalez gaindiko hainbat erakundetan Sopelak izango dituen ordezkariak izendatu zituzten azken Osoko Bilkuran, uztailaren 30ekoan. Ondorioz, legegintzaldi honetan, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean Sopelako ordezkari jardungo dute: Gontzal Hermosilla (EAJ), Guillermo Vio (EHBildu) eta María Teresa Fernandez (PSE). Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan, ostera, ordezkari bakarra izenda zitekeen, eta berau izango da: Gontzal Hermosilla (EAJ).

Azkenik, Sopelako Udal Euskaltegia deritzon Sopelako Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoan Udalaren ordezkari izango dira aurrerantzean: Gontzal Hermosilla, Leire Basauri eta Naiara Ibarzabal (EAJ); Guillermo Vio, Iratxe Moreno eta Miguel Tapia (EHBildu); María Teresa Fernandez (PSE); Jon Andoni Gerediaga (DB-TU); eta Juan Ignacio del Vigo (Orain). ◀

Info+: www.sopela.eus

Euskaraz Olgetan eta Berbalagunak, oster ere bueltan!

Ikasturte berriari ekin dio Euskaraz Olgetan programak, familiarrean euskararen erabilera bultzatzeko asmoa daukan egitasmoak. Eskualdeko hainbat herritan egiten da, eta daborduko badakigu zeintzuk diren Sopelako hurrengo hitzorduak, irailerako eta urrirako. Gurean, jarduerak Larrabasterako Urgitxeta plazan egiten dabilta, domeka denetan, 12:00etatik 14:00etara.

Bestalde, abiatzear da Berbalagun taldea: lagun gutxiko taldeetan, elkarrengaz euskaraz trebatzeko. Izen-ematea, hilaren 30era arte. ◀

izen-ematea: ukberbalagun@gmail.com
688 899 868



Zientzia-pilulak

EDUARDO
SAN ANDRES ARANA
Matematika irakaslea

Ikusi eta ikasi: hau da zientzia!

Giza gorputzaren ezaiguera, eta ondorioz medikuntzaren garapena, oso murriztua izan zen gorpuen disezioa lantzen hasi zen arte. Erdi Aroan, medikuntza arloan ezaguera korpua Galenoren garaitik zetorren, Grezia klasikoko mediku ospetsuak ezarritako egia zientifikoak ukiezinak zirelarik. Garai hartan giza gorpuen disezioa debekatuta zegoen motibo superstiziosoak medio, baina gauzak aldatzen hasi ziren XVI. mendean Sixto IV.a aitasantuak ediktu berri bat atera zuenean: handik aurrera disezioak baimentzen ziren, betiere lekuko botere eklesiastikoak onartuta. Honen eraginez disezioak hedatzen hasi ziren, lehenengo Italian, Boloniako unibertsitatean, eta gero Europa osoan. Unibertsitateetan antzoki anatomikoak sortu ziren, zeinetan ikasleek medikuntza ikasten zuten gorpuzta zuzenean behatuz.

1514. urtearen azken egunean Bruselan Andrias Van Wesel jaio zen, historian Vesalio izen latinizatua izan dena. Parisen eta Paduan medikuntza ikasi eta gero Espainian bizi zen Felipe II.a erregearen mediku pertsonala zelarrik, eta kanpaina militarretan lagundu zuen bere ezaguera kirurgia arloan sakondu zuen. *De humani corporis fabrica* bere liburuan Galenoren baieztapen gehienak bertan behera utzi zituen eta anatomiko lehenengo lan zientifiko seriotzat jotzen da. Bertan gorpuztaren atalen deskribapen zehatza egiten da eta gorpuztaren natura mekanikoa azpimarratzen da. Lan hau 1543. urtean argitaratu zen, Copernicoren lana bezala, eta sinbolikoki metodo zientifikoaren abiapuntutzat har liteke. Ezarritako egiaren ez onarpena eta behaketa zuzenaren beharra ezaguera bereganatzeko dira anatomia aitak oinordetzan utzi digun altxorra. ◀



Hartzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA
SOPELA, Iripa kalea 1 (Udaletxe atzean)



Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!

Bentaburu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Urduliz

Bederatzi egun, jai giroan



Los Fastuosos de la Ribera taldea. LFR

Irailean, urduliztarren txanda da! Hilaren 4an andramarien ospakizunak abiatuko dituzte, eta hilaren 13ra arte iraungo dute. Txupina jaurtiko dute barikuan, udaletxeko balkoitik, eta ordutik aurrera, udalerrira jai giroan murgilduko da. Denbora tarte horretan, hamaika aukera izango dituzte auzotarrek zein parrandazaleek egunak modu ezin hobean igarotzeko; ez da ezer faltako: kirol probak eta lehiaketak, bazkariak, kontzertuak, txapelketa gastronomikoak, umeentzako jolasak eta dantza-ikusizunak, besteak beste.

Urtero legez, lehenengo aste akabuan txosnen gunea elizaren ondoko landan egongo da, kontzertuak hartuko dituen oholtzagaz batera. Bigarren asteburuan, hilaren 11tik 13ra, osterara, txosnak eta oholtza Elortza auzora eroango dituzte. ◀

info+: www.urduliz.eu

Ekitaldi batzuk

Irailak 4, barikua

19:00 Txupinaren jaurtiketa, udaletxetik.

19:00 Urdulizko II. Sangria Lehiaketa.

20:30 Kale-antzerkia, Lehendakari Agirre plazan.

21:00 Kickboxing eta boxeo-erakusketa, Iparralde kiroldegian.

23:00 Kontzertuak, Salamandras, Talky Band eta DJ Juan taldeakaz.

Irailak 5, zapatua

13:00 Bits-jaia.

18:00 Umeentzako jolasak eta mozzorro-lehiaketa.

23:00 Kontzertuak, Los Fastuosos de la Ribera eta Trikizio taldeakaz.

Irailak 6, domeka

17:00 Goitibeheren jaitsiera.

Irailak 8, martitzena

12:00 Herri-kirolak.

16:00 XXIX. Andra Mari Txirindularitza Sari Nagusia.

Tailerretan izena emateko epea irekita

Udaren amaiera ate joka dugu, eta horregaz batera ikasturte berriaren hasiera. Hori horrela, martxan dira 2015-2016 ikasturterako tailer ezberdinetan parte hartzeko izena emateko epeak, Urdulizko Kultur Etxeak antolatzen dituen tailerretan, barbarako. Ikastaroak udalerrian eta kanpoan errolatutako lagunei begirakoak izango dira; hala ere, ohi legez, bertokoek lehentasuna eta prezio bereziak izango dituzte. Interesa dutetuek honako tailerrak izango dituzte aukeran: zur-lanketa, trikitia, puntu eta kakorratza, yoga, ehoziri-lanak,

joskintza, ekialdeko dantza, dantza aerobikoa, musika eta mugimendua, helduentzako pianoa, umeentzako pianoa, helduentzako margotzea eta umeentzako margotzea; kultur etxera jo beharko dute horietakoren batean izena emateko. Matrikula, osterara, udaletxean ordaindu beharra dago, eta gero ordainagiria eta izena eman izanaren orria kultur etxean aurkeztu. Kurtso bakoitzak prezio bat du, eta ordainketa egiteko, dena batera edo zatika pagatu ahal izango da. ◀

info+: www.urduliz.eu
harremanetarako: 946 763 631

Ikastaroak

Zur-lanketa

Martitzen eta eguenetan.

Trikitia

Eguenetan.

Yoga

Astelehenetik eguaztenera.

Ehoziri lanak

Eguaztenetan.

Joskintza

Astelehenetan.

Ekialdeko dantza

Eguenetan.

Dantza aerobikoa

Eguenetan.

Musika eta mugimendua

Eguaztenetan.

Helduentzako eta umeentzako pianoa

Eguaztenetan.

Helduentzako margotzea

Martitzenetan eta barikuetan.

Umeentzako margotzea

Astelehenetan eta barikuetan.

Hilaren 15era arte ordain daiteke trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga

Urduliztarrek irailaren 15era arte dute aukera, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko. Interesen bat dutela uste dutenek errolda azter dezakete udal-tertxeko bulegoetan bertan, eta, hala badagokio, bidezkotzat jotzen dituzten errekamazioak edo alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Borondatezko epea gaundituta, hilaren 16an nahitaezko epea hasiko da, ordaindu beharrekoari gainkargua eta interesak gehituz. ◀

info +: www.urduliz.eu
www.euskadi.net/mipago

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Irunbat
gasolinak
C/ Loloia Ander Deuna, 74

Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net

OFERTÓN MARTES Y SÁBADO

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

txakoli
mota ganeTx
txakolina

leioa Urbe errepidea 34 (Alaxanda Parkeal) Goleeri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Libareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

ABIAN

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

Uribe Kosta

Lan-munduan sartzeko aukerak



Zerbitzuak eskualdeko gazteei zuzenduta egongo dira.

Ingeles ikastaroak, praktikak enpresetan eta beste hainbat aukera eskainiko dizkie gazteei UK Gaztea programak.

UK Gaztea programa egitarau berriagaz dator udako oporren ostean. Hala, hainbat zerbitzu eta ikastaro izango dituzte aukeran eskualdeko ume eta gazteek, 5 eta 30 urte artekoek, euren jakin-minak asetzeko. Lehenengoak aisialdi inklusiboa jorratuko du. Horretan, zerbitzuak aukera emango die urritasunak dituzten gazteei Uribe Kostako udalek antolatutako jar-

dueretan parte hartzeko. Jarduerak dirauen bitartean emango dute zerbitzu hori. Era beran, sexologiako orientazio-zerbitzua ipiniko dute Kurtzio kultur etxean eta Leioako Aterpe gaztegunean. Bertan, gazteei eta euren inguruan bizi diren senitarteko, irakasle, begirale eta hezitzaileei hezkuntza eta aholkularitza hurbil eta eragingarri bat eskainiko die, besteak beste. Horrez gainera, erantzunak bilatzeko esparrua izango da gazteen zalantzei, zailtasunei, kontraesanei, informazio-ezari eta sexu-tabuei.

Zerbitzu horiez biez gainera, Uribe Kostako neska-mutilek hainbat ikastaro izango dituzte aukeratzeko. Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizeko 16 eta 30 urte ar-

teko gazteek ingeles ikastaroak egiteko aukera izango dute, B2 eta C1 mailatan; bietan maila-azterketak egingo dituzte.

Horiez gainera, UK Gaztea programak beste lau zerbitzu eta aukera eskainiko dizkie neska-mutilei lan-munduan murgiltzen laguntzeko: kalitate-sistemak, praktikak enpresetan, jendaurrean hitz egiteko gakoak, eta lan-esparruan nork bere burua saltzen ikasteko sormen-teknikak. Azken bi horiek bideratuta egongo dira 18 eta 30 urte arteko Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizeko gazte guztiei. ◀

info+: www.urbecosta.net

harremanetarako: gaztebulogoa@getxo.net

ocioinclusivo@urbecosta.org

Eskaintza

Aisialdi inklusiboa

Adina: 5-30 urte
Euskaraz eta gaztelaniaz.

Sexologiako orientazio-zerbitzuak

UKSEX eguenero 18:30-20:00.
LEIHOSEX eguenero 16:30-20:00.

Ingeles ikastaroa B2

Adina: 16-30 urte
Urritik abendura bitartean; izen-ematea: irailaren 7tik 18ra.

Ingeles ikastaroa C1

Adina: 16-30 urte
Urritik abendura bitartean; izen-ematea: irailaren 7tik 18ra.

Kalitate-sistemak

Adina: 30 urtera arteko erdi- eta goi-mailako gradu-tituludunak eta unibertsitateko ikasleak
Urritik abendura bitartean; izen-ematea: irailaren 7tik 18ra.

Praktikak enpresetan

Adina: Erdi- eta goi-mailako gradu-tituludunak, unibertsitateko ikasleak aurretik lanik eta/edo lan-praktikarik egin ez dutenak
Izen-ematea: irailaren 18ra arte.

Jendaurrean hitz egiteko gakoak

Adina: 18-30 urte
Azaroak 2, 4, 9 eta 11; 18:00-20:30.
Izen-ematea: irailaren 1etik aurrera, plazak bukatu arte.

Lan-esparruan nork bere burua saltzen ikasteko sormen-teknikak

Adina: 18-30 urte
Azaroak 16, 18, 23 eta 25; 18:30-20:30.
Izen-ematea: irailaren 1etik aurrera, lekuak bete arte.

Gorliz

Kultur Etxeak tailer ugari antolatu ditu

Oporraldiaren ostean, «eskolara» bueltatzeko ordua helduko da laster. Horregaz batera, neska-mutilek eskolaz kanpoko ikastaroe-tan ere parte hartzeko aukera izango dute. Gorlizko Kultur Etxeak kultur eta kirol eskaintza askotarikoa prestatu du datorren ikasturterako. Kultur eskaintzaren barruan, honakoak egongo dira aukeran: alboka, jostaketa, grafopsikologia, eskulanak, panderoa, patchworka, pintura, antzerkia, trikitia, txalaparta, artea, zeramika eta pintura. Kirol eskaintzan, berriz, honakoak au-

keratu ahal izango dira: aikidoa (14 urtetik gora), aretoko dantzak, nagusientzako gimnasia berezia, hipopresiboa, padela, patinajea, spinninga, total gyma, tai-xi chi-kung-a, yoga, zumba, gym-jazza (8-12 urte), padel txikia (5-8 urte eta 5-12 urte), psikomotrizitatea (3-4 urte) eta zirkua (4-10 urte).

Kultura edo kirol ikastaro horietan batean parte hartu gura dutenek hilaren 15era arte izango dute izena emateko aukera. Ostera, klaseak urriaren 5eko astean hasiko dira. ◀

info+: www.gorliz.eu

Hilaren 10ean bueltatuko da Euskaraz Olgetan egitasmoa

Udako oporren atsedenaldiaren ostean, hilaren 10ean bueltan dator Euskaraz Olgetan egitasmoa Uribe Kostako Mankomunitateko udalerrietara. Ekimena berrikuntzaz bete dator, mota guztietako tailer, jolas eta ekitaldiakaz, bertoko Euskara Zerbitzuko arduradunen arabera. Gurasoei bereziki egongo dira zuzenduta hainbat ekintza, euren parte-hartzea handitzeko asmoz, azaldu dutenez.

Bestalde, Sopelan eta Lemoizen lekuz aldatuko da egitasmoa; Armin-tzan eta Larrabasterran egingo dira irail eta urriko ekintzak. Hala, hilaren 10etik 14ra, Ingurumen Eguna eta Natur Tailerra egingo dituzte Plentziako Astillero plazan (17:30-19:30), Urduliz-

ko Antsonekoa plazan (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00-14:00), Larrabasterrako Urgitxeta plazan (12:00-14:00) eta Armintzan (17:00-19:00), hurrenez hurren.

Euria egiten duen egunetan, osterara, ekimenak honako tokietan burutuko dira: Armintzako pilotalekuan, Plentziako udaletxeko arkupeetan, Urdulizko probalekuan eta Gorlizko pilotalekuan izango dira jolasak. Larrabasterran, osterara, euriagaz ere Urgitxietan jarraituko dute egiten. Irailaren 17tik 21era bitartean, berriz, jolas koloretsu eta erraldoiak egingo dituzte; eta hilaren 24tik 28ra, euskal dantzak eta musika-jolasak familian. ◀

info+: www.euskarazolgetan.wordpress.com



URIBE KOSTAKO UDA ARGAZKI-LEHIAKETA

Martxan da **herri-bozketa**: irailaren 29ra arte gustukoen dituzun 3 argazki aukera ditzakezu.

Botoa emateko ordua da!

Aukeratu zure argazkirik gogokoenak www.hiruka.eusen!

1.000

euroko balioa duen **egonaldia** zein argazkik irabaziko ete du?



Irudi hauek Uribe Kostako argazki-lehiaketan parte hartu duten argazki guztietatik aukeratutako batzuk baino ez dira.

DEN-DENAK IKUSTEKO ETA ZURE BOZKA EMATEKO:
www.hiruka.eus

SARIA

Sari bakarra izango da: 1.000 euroko balioa duen bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego. Ez da inolaz ere onartuko irabazitako sarien orde, beste sari batzuk edo dirua hartzea.

SARI-BANAKETA

Herri-bozketaz aukeratu da sariduna: boto gehien jasoko dituen argazkiaren egilea.

Bozketa www.hiruka.eus webgunearen bitartez egingo da, irailaren 1etik 29ra bitartean.

Erabakia ezin izango da eztabaidatu edo gaitzetsi.

Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko dugu, HIRUKA paperezko astekaritan eta www.hiruka.eus agerkari digitalean. Epostaz edo telefonoz harremanetan jarriko gara saridunagaz.

HIRUKA Koop. ELK.-k bere egiten du, edozein arrazoi dela medio, zozketa behin betiko aldatzeko, bertan behera uzteko edo eteteko eskubidea, eta ez du inolako erantzukizunik izango horregatik.



Uribekostarrak non, Uribe Kosta han!

Herri-bozketa martxan da: irailaren 29ra arte gustuen dituzun 3 argazki aukera ditzakezu.

hiruka Uribe Kostako astekaria

EROSKI bidaiak

Anetsetan? Egizu legar!



Goran Bregovic Balkanetako jai-erritmoen maisuak ezkontza- eta hileta-banda bategaz joko du. © GETXOKO KULTUR ETXEA



Folkaren txanda, Getxon

Getxo Folk BBK jaialdiak Estrella Morente, Goran Bregovic, Gwendal eta Oskorri ekarriko ditu Areetako Xake plazara.

Irailaren 3tik 6ra Folk Getxo BBK jaialdiak bere 31. ekitaldia ospatuko du. Aurtengo egitarauan, Estrella Morente, Goran Bregovic, Gwendal eta Oskorriren saioak nabarmentzekoak dira. Hala ere, daborduko amaitu egin dira, erretiratu aurretik, Oskorrik emango dituen azken kontzertuetatik lehena ikusteko sarrerak; azaroaren 22an agur esango digu betiko, Bilboko Arriaga antzokian.

Folk Getxo BBK jaialdiak hau guztia hartuko du: 11 kontzertu, kale banden desfilea, eta lankidetzaz zein kulturen aniztasuna bultzatzen dituzten jarduerak. Ohi den legez, Areetako Xake plazan izango dira emanaldi nagusiak (ordaindu beharrekoak), iluntzeko 21:00etan (domekan, 20:00etan); ostera, arrastiko saioak plazaren atzealdeko aparkalekuan, 19:00etan (domekan, 18:00etan). Munduko Terrazak ekimenaren kontzertuak ere (23:00etan) bertan izango dira, baita

umeentzako saioa ere. Gainera, bestelako jarduera ugari egingo dituzte Folk Getxon, berbarako: Munduko Eskularen Azoka; kale-banden desfileak; zenbait gobernuz kanpoko erakunderen eta elkarteren postuak bilduko dituen Gune Solidarioa; hainbat herrialdeetako platerak eskaniko dituen Munduko Terrazak, eta abar.

Banan-banan

Arrastiko saioetan (19:00etan), ikusleek askotariko programaz gozatu ahal izango dute: Vrienden asturiar bandaren fusio-folkean hasita, eta

Banden desfileak, eskularen azoka eta munduko jakiak ere egongo dira

Mikel Markez kantautoreak eta Aire Ahizpak *a cappella* ahots-hirukotearen arteko elkarlanean amaitu, eta tartean, Salaoren flamenkoa, eta Andres Penabad akordeoi-jotzailearen galiziar folk berria. Bestalde, saio nagusiak amaitu ondoren, Munduko Terrazak-eko kontzertuak hasiko dira. Bertan izango dira Moxie, folk irlandar

berriaren erakusle berritzaile eta freskagarria; eta Raul Rodriguez, flamenkoa eta doinu kubatarrak uztartu ditu, berak asmatutako tresnaz baliatuta.

Oholtza nagusiko saioetako lehen-dabiziko kontzertuan, flamenko musikaren ahots garrantzitsuenetariko batek jardungo du: Estrella Morentek, hain zuzen ere. Areetara, *Autorretrato* ikuskizuna dakar, erritmo anitzak sofistikatu eta egungoaz baliatuta. Bigarren egunean, Goran Bregovic musikari bosniarra egongo da. Balkanetako jai-erritmoen maisuak ezkontza- eta hileta-banda bategaz joko du, doinu ugari nahasten dituen fusio ikuskizunean. Jaialdiaren erdialdean musika zeltaren arloko talde esanguratsuenetariko batek jardungo du, Gwendal banda bretoiak. Oraingoan, gonbidatutako beste artistakaz jardungo du, eta Areetako saioa grabatuko dute taldearen disko berrirako. Saio nagusien eskaintza biribiltzeko, Oskorrik itxiko du Folka. Euskal musikaren talde ospetsuenetakoak *Hauxe da despedida* bira abiatuko du Areetan, zaleei agur esateko, zenbait hamarkadaz ibilbide arrakastatsua osatu ostean; ikuskizun horretarako sarrerak daborduko agortu egin dira. ◀

Egitaraua

Irailak 3, eguena

19:00 Vrienden (Asturias), Xake plaza atzeko aparkalekuan (Itzubaltzeta/Romo). Sarrera: doan.

21:00 Estrella Morente, Xake plazan (Areeta). Sarrera: 20 euro.

Irailak 4, barikua

19:00 Andres Penabad (Galizia), Xake plaza atzeko aparkalekuan. Doan.

21:00 Goran Bregovic & Wedding and Funeral Band, Xake plazan. Sarrera: 25 euro.

23:00 Moxie (Irlanda), Xake plaza atzeko parkingean. Doan.

Irailak 5, zapatua

12:30 Abeltzuriak taldearen *Euskal soinu tresnak* umeentzako saio didaktikoa, aparkalekuan. Sarrera: doan.

19:00 Salao (Katalunia), Xake plaza atzeko aparkalekuan. Doan.

21:00 Gwendal (Bretaina), Xake plazan. Sarrera: 15 euro.

23:00 Raul Rodriguez (Andaluzia), Xake plaza atzeko aparkalekuan. Sarrera: doan.

Irailak 6, domeka

18:00 Mikel Markez eta Aire Ahizpak (Euskal Herria), Xake plaza atzeko aparkalekuan. Sarrera: doan.

20:00 Oskorri, Xake plazan (Areeta). Sarrerak agortu egin dira.

Gainera, banden desfileak, Munduko Eskularen Azoka, Gune Solidarioa, Munduko Terraza egongo dira.


hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko irailaren 3tik irailaren 9ra arte



hiruka.eus



Pedrak sei urte daroatza Extremoduroren abestiak jotzen. © PEDRA

ERANDIO

Extremoduroren doinuak eskainiko ditu Pedrak

Irailaren 4an, barikua, Extremoduroren omeneko Pedra taldeak kontzertua emango du Astrabuduko Josu Murueta plazan. Hitzordua 22:00etan ipini dute; sarrera, doan. Pedra 2009an sortu zen Plasenciako (Caceres) musikari esperientziadunen eskutik, Extremodurori gorazarre duina egiteko asmoz. Errespetua eta miresmena sentitzen dituzte Robe Iniesta

eta bete taldekiekiko; eta urte asko daroate haien musika entzuten; Extremoduro ere Plasencian sortu zen.

2009ko urriaren 10ean, lehen kontzertua eskaini zuen Pedrak, eta, ordutik, kontzertu asko eta asko eman dituzte, Extremaduratik hasi eta Galizia, Euskal Herria, Aragoi, Kantabria, Madril eta beste horrenbeste leku bitatu dituzte. Urte horietan guztie-

tan, arrakasta eta kritika on ugari lortu dituzte. Orain arte, 250 kontzertu baino gehiago eman dituzte, eta, horietan, Pedrak «rock musikaririk urratzaileena» jo du, taldearen ezaugarri diren indar eta profesionaltasunagaz. Giro eta musika ona dira Pedraren ikurrak. Eta adierazi dutenez, taldeak denboraldi berri bati ekin dio, inoiz baino sendoago. ◀

PLENTZIA

Victor de Diegok bukaera emango die Jazz Ostegunei

Uztailaren 23an abiatu zuen Jazz Ostegunak ekimena Xurru pizzeriak, 30. urteurrenaren ospakizunak are gehiago biribiltzeko asmoz. Uda amaitzean da goela, irailaren 3an izango da ziklo horretako azkeneko saioa. Ohi den legez, eguraldi ona bada, Xurruen kanpoaldean egingo dute kontzertua, 21:00etatik aurrera; sarrera, doan. Jazz Osteguneri akabua emateko, Victor de Diego saxofonista bilbotarrak joko du bere taldeagaz. Urteak dira De Diego Bartzelonan bizi dela; orain urte bi plaza ratu zuen bere azken diskoa, *Tribute* (Quadrant Records, 2013). ◀



© VICTOR DE DIEGO

GETXO

Jane Austen idazleari gorazarre eginez

Jane Austen idazlearen (Stevenston, Ingalaterra, 1775 - Winchesteer, Ingalaterra, 1817) *Emma* (1816) eleberriaten gaineko irakurketa-kluba zuzenduko du urriaren 8tik azaroaren 26ra, eguenero, Fernando García-Pañedak. Algotako Villamonte kaleko kultur etxean batuko dira irakurketa-klubekoak. Hain zuzen ere, irailaren 7tik 30era egongo da irakurketa-klub horretan izena emateko aukera. Jane Austen gazte-gazterik hasi zen idazten, bere atseginerako eta familiaren jolaserako. ◀



2015/09/04 - 23:00

Moxie talde irlandarraren kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera doakoa da.

2015/09/05 - 2015/09/06 - 10:00-14:00

Piraguen doako mailegia Altzagako ontziralekua | Erandio

2015/09/03 - 2015/10/04

Getxophoto jaialdia Udalterrian zehar | Getxo

Informazio gehiago eta ordutegia: www.getxophoto.com

2015/09/03 - 2015/09/06

Munduko eskulanak Xake plaza (Areeta) | Getxo

Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Hainbat herrialdeko eskulanak, salgai.

Dantzak eta jolasak, herriko txiki-entzatzat

Irailaren 7an eta 9an Uda Fun egitasmoaren azken aurreko saioak edukiko dituzte txiki-entzatzat Txintxilandia plazan; dantzak, tailerrak eta jolasak ez dira faltako, 17:30etik 19:00etara bitartean. Euria bada, liburutegian egingo dute. ◀

info-+: ukberbalagun@gmail.com / 688 899 868

Gurasolagun eta berbalagunen bila

Uribe Kostako Mankomunitateko Eus-kara Zerbitzuak irailaren 7an zabalduko du Berbalagun eta Gurasolagun egitasmoetan izena emateko epea; hildaren 30era arte egingo da aukera. ◀

info-+: turismo@gorliz.net / 946 774 348

Itsas elizatea ezagutu gura duzue?

Gorlizko Turismo Bulegoak bisita gidatuak egin ohi ditu martitzenetan (17:00) eta eguenetan (11:00), udalerrian zehar. Bisitaldiek ordubeteko iraupena izaten dute, eta prezioa 1,60 eurokoa da. ◀



Portu Zaharreko pertsonaiek azalduko dute Algoritako txoko horretako historia.

Antzeztutako bisitak, Getxon

Gidari batez joatez gainera, «garaiko pertsonaia-kaz» harremanetan ipintzeko aukera edukiko dute bisitariak; hala, bisitatuko dituzten txokoak eta haien historia modu dibertigarrian eta didaktikoan ulertu eta gozatu ahal izango dituzte. Bisitek 60 minutuko iraupena daukate. ◀

Noiz: Irailaren 3ean Bizkaia Zubia, eta 6an Algotortako Portu Zaharra

Ordua: 11:30ean

Non: Hamar minutu lehenago, bisitatuko den lekuan
Izen-ematea: Ez da beharrezkoa. Hala ere, 12 urtetik gorakoek 3 euro ordaindu behariko dituzte.

2015/09/03 - 2015/09/06

Elkartasun gunea

Xake plaza (Areeta) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan, bidezko merkatarizaren postuak, Udalaren Immigrazio eta Kooperazio sailakaz elkarlanean.

Orduetgia: 12:00-14:00 eta 18:00-22:00

2015/09/03 - 2015/09/06 - 18:00etatik aurrera

Munduko Terraza

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan, nazioarteko gastronomia. Getxo-ko Etorikinen Plataformak antolatuta.

2015/09/03 - 2015/09/06 - 19:30

Banden desfilea

Eskeletako plaza (Areeta) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan.

2015/09/03 - 19:00

Vrienden talde asturiarraren kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera, doan; tokia bete arte.

2015/09/03 - 21:00

Estrella Morenteren kontzertua

Xake plaza (Areeta) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera: 20 euro. Daborduko salgai.

2015/09/04 - 2015/09/13

Andra Mari jaiak

Elexalde eta Elortza | Urduliz
Egitarai 050a:
hiruka.eus/agenda

2015/09/04 - 2015/09/09

Ondizko jaiak

Ondiz auzoa | Leioa
Egitarai 050a:
hiruka.eus/agenda

2015/09/04 - 19:00

Andres Penabad galziarraren kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera, doan; tokia bete arte.

2015/09/04 - 21:00

Goran Gregovic, kontzertuan

Xake plaza (Areeta) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera: 25 euro. Daborduko salgai.

20 toki. Doan, Erandion erroldatuentzat eta adin txiki-entzatzat. Informazio gehiago: 665 702 282

2015/09/05 - 12:30

Abeltxuriak taldearen umeentzako saio didaktikoa

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera, doan; lekua bete arte.

2015/09/05 - 19:00

Salao talde katalanaren kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera, doan; lekua bete arte.

2015/09/05 - 19:00

Des-Habitat kale-antzeziana

Udaletxe aurreko plaza | Sopela
Vaiven taldeak antzeztuta. Sarrera doakoa izango da.

2015/09/05 - 21:00

Gwendal taldearen kontzertua

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera: 15 euro. Daborduko salgai.

2015/09/05 - 23:00

Raul Rodriguezen andaluziarraren kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera doakoa izango da.

2015/09/06 - 17:00

Euskarians eta Uruguaiaren arteko errugbi-partida

Fadurako errugbi-zelaia | Getxo

Lagunarteko norgehiagoka ikusteko sarreraren salneurria 5 eurokoa da, 18 urtetik gorakoentzat. Atingabeentzat sarrera doakoa izango da.

2015/09/06 - 18:00

Mikel Markezen eta Aire ahizpen kontzertua

Xake plaza atzeko parkinga (Romo) | Getxo
Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Sarrera, doan; lekua bete arte.

2015/09/06 - 21:00

Oskorriren kontzertua

Xake plaza (Areeta) | Getxo

Folk Getxo BBK jaialdiaren barruan. Oskorririk emango dituen azken kontzertuetatik lehenago da. Sarrerak agortu egin dira.

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

1

Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

Eguenean hasita, hilabetez luzatuko da Getxophoto jaialdia



Daborduko ikusgai daude aurtengo erakusketa osatzen duten argazki erraldoiak.

Getxophoto nazioarteko jaialdiaren bederatzigarren edizioan, 20 argazkilarik parte hartuko dute. Gainera, egitarau oparoa prestatu dute, parte-hartzea sustatzeko.

Eguen honetan, irailak 3, Getxophoto Nazioarteko Argazki Jaialdiaren bederatzigarren edizioa hasiko da, Begihandi kolektiboak antolatuta; «Bidaiak» izango du aurtengo gaia, eta urriaren 4ra arte luzatuko da. Jarduera nagusiak lehenengo aste akabuan izango

dira, hilaren 6ra bitartean, hain zuzen ere. Irekiera-jaia barikuan egingo dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan; eta bertan Christian Caujolle komisarioa eta jaialdian parte hartzen duten argazkilariak egongo dira. Garrik eta Jon Aguirrezabalagak (We Are Standard) musika jarriko diote inau-

gurazioari. Era berean, aurtengo ere Itxialdia izeneko hausnarketarako jardunaldia egingo dute, eta Algortako hainbat gunetan proiektioak eskainiko dituzte gaur.

Hogei egile

Oraingo honetan, nazioarteko 20 egile bako bako bidaien inguruan euren ikuspuntua eskainiko dute, eta, beste urte batez, esparru publikoa erabiliko dute argazkiak erakusteko. Getxophotoren komisario Christian Caujolleren arabera, hiru dira Getxophoto

Ekitaldi batzuk

Irailak 3, eguna

21:00 Proiektio bereziak, Algortako Kasino plazan eta Basagoitin. Sarrera doan.

Irailak 4, barikua

20:00 Irekiera Jaia, Areetako Andres Isasi musika eskolan. Aurretik izena eman behar da.

21:00 Proiektio bereziak, Algortako Ereaga hondartzan eta Portu Zaharrean. Doan.

Irailak 5, zapatua

21:00 Proiektio bereziak, Basagoitin eta San Nikolas plazan, Algortan. Sarrera, doan.

21:00 Argazkiaren Gauda, Algortako San Nikolas plazan. Doan.

Irailak 6, domeka

11:30 Bisita berezia. Erakusketak ikusteko txangoa komisarioagaz eta jaialdira etorritako argazkilariakaz, Villamonteko kultur etxetik abiatuta. Doan.

info+: www.getxophoto.com

Nazioarteko Argazki Jaialdiaren ezaguri nagusiak: jarduera artistiko bat egiteko esparru publikoaren erabilera, publikoagaz sortzen den elkarreragina, eta erakusten diren joera anitzak.

Argazkiek hainbat leku bereganatuko dituzte: Ereaga hondartzatik Algortako Portu Zaharreraino doan ibilbidea, auzoaren goiko partea, zenbait erakusketa areto eta eraikin publikotan egongo dira ikusgai. Bestalde, egitarau «sendoa eta aberatsa» osatu dute Jokin Aspuru Getxophotoren zuzendariak aurreratu duenez. ◀

Vaiven Teatroren kale-antzerkia, Sopelan

Zapatu honetan, irailak 5, *DES-Habitat* kale-antzezlan eskainiko du Sopelan Vaiven konpainiak. Hitzordua arrastian, 07:00etan, ipini dute udaletxe aurreko plazan, sarrera doan. Granadako antzerki taldeak martxoaren 10ean aurkeztu zuen bere laugarren obra Alhambra antzokian, «denok behar dugu lekuren bat bizigarri egin» premisa oinarritzat hartuta. *DES-Habitat* lanean zirkua, dantza garaikidea eta antzerkia bera uztartzen dituzte granadarrek.

«Inoiz ezertxo ere gertatzen ez den lekua» da *DES-Habitat*. «Hala ere, pertsonaiek bertan egon gura dute; ondo sentiarazten eta hartzen gaituen lekua

da. Batean kale, bestean bale. Baina, beti ematen digu zerbait», diote konpainiatik. Bere identitatea berreskuratzen gura duen mundu batean topo egiten duten lau ezezagunen istorioa kontatzen du antzezlanak. Denen ongizatea lortzeko, elkarlanean jardun beharko dute pertsonaiek; antzezlanean hainbat elementu aurkituko dituzte, laurak partekatuko duten etxearen osagarriak izango direnak. Horrez gainera, gertaera dibertigarri eta arriskutsuei aurre egin behar izango diete denek batera.

Vaiven Teatro 2008an sortu zen. Bidean 300 emanaldi baino gehiago eskaini ditu konpainiak. ◀

BOSek kontzertua eskainiko du Areetan

Eguaztenean, irailak 9, berriro ere Getxon emango du kontzertua Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS). Oraingo honetan, Areetako Xake plazako karpan izango da saioa, 19:30etik aurrera; Glinka-ren, Liszt-en, Tchaikovsky-ren eta Dvorák-en piezez osatutako egitarauaz gozatu ahal izango dute musikazaleek bertan. Carlos Garcés izango da zuzendari, eta Itxaso Sainz de la Maza piano-bakarlariek parte hartuko du. Sarrerak daborduko salgai daude 5 euroan, Algortako kultur etxean.

Bilboko Orkestra Sinfonikoa 1920ko hamarkadan sortu zen. Urte hartan, Mr. Armand Marsick musikari belgi-

karra Bizkaiko hiriburura heldu zen kontserbatorioa zuzentzeko. Horrenbestez, Gortazar, Alaña, Arisqueta eta euren taldeak garatutako ideia sendotu egin zen, Marsickek zeukan prestakuntza teknikoagaz. Horiek horrela, 1922an, Bilboko Orkestra Sinfonikoak bere lehenengo kontzertua eman zuen, Arriaga Antzokian.

Azken urteetako mugari handietako bat Euskalduna Jauregiaren eraikuntza izan da; izan ere, Orkestraren egoitza bihurtu da, eta hobekuntza ikusgarria ekarri du, bai kontzertuetara doazen entzuleei begira, bai musikarien lan-baldintzei dagokienez. ◀

info+: www.bilbaorquestra.com

«Emakumeon borroka ez da amaitzen jaioterria uzten dugunean»

Lucy Sepulveda Velasquez txiletarrak 42 urte daroatza Euskal Herrian. Horietatik ia 30, Gorlizen. Pinocheten estatu-kolpetik ihesi heldu zen gurera. *Mas alla de una sola voz* liburua plazaratu du Marivi Marañon Martinez eta Carmina Villalba Ayuelagaz batera. Jaioterria utzita Bizkaian zelan lekukotu ziren hainbat emakumeren testigantzak jasotzen ditu lanak.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zer aurkituko du irakurleak *Mas alla de una sola voz* liburuan?

Oso ondo bereiz daitezkeen hiru atal dauzka *Mas alla de una sola voz* liburuak. Landutako gaiak eta erabilitako literatura-generoak ezberdinak dira. Marivi Marañon Martinek landutako kapituluak emakume etorkinen kontakizunak batzen ditu. Berak ere Burgostik Sestaorako bidaia egin zuen, eta andre etorkinen historia, gorabeherak, hainbat arrazoik eragindako gatibualdia eta abar kontatzen ditu. Lekukotasun denak egiazkoak dira. Babel Munduko Emakumeak gobernuz kanpoko erakundearen babesa jaso ostean, Marivik berak jaso ditu emakumeen kontakizunok. Horrez gainera, horiek denek bizi izandako erbestealdiaren atsekabea, diskriminazioa, euren jaioterritik urrun dauden herrialdeetan amaizatea eta abar deskribatzen ditu lehen atal horrek. Emakume horien konfidentzietan, ondokoa nabari daiteke: arazoa bata edo bestea izanda, edozein bide-tatik aurrera egiteko gai dira bere helburuak lortzeko.

Liburuaren bigarren atala zuk idatzi duzu, ezta?

Bai, horrela da. Bertan, 19 emakume txiletarri egindako elkarrizketak batu ditut. Txile hegoaldeko San Rosendo herrixkan jaio nintzen ni, baina 42 urte daramatzat Euskal Herrian; 25 urtegez etorri nintzen. Liburura itzuliz, elkarrizketaren bitartez, euren munduan sartzea lortzen dut; ez bakarrik zer amesten duten atzemanaz, baizik eta amets horiek errealitate bihurtzeko gai ere badirela erakusten dut, horreta-

rako dantza, sukaldaritza, literatura, pintura, politika... erabiltzen dituzte. Bat eginez, beldurrari aurre egiteko, kalera irteteko eta eguneroko bizitzari heltzeko indarra aurkitu duten emakumeak dira horiek denak. Esan daiteke andre horiek hartutako konpromisoetan eta erantzukizunetan oinarritutako historiak aurki daitezkeela elkarrizketa horien atzean.

“ **Mahaigainean jarri gura dugu munduko bizilagunen erdiaren errealitatea, dagokionak ikus dezan** ”

Emakumeok egindako lanaren oinarria da «zeozer egin, hamaika aldiz, denentzat eta denen alde». Euren jarduera guztiak munduaren mugaldea gauzatu dituzte. Baina, aldi berean, beste kontinente batzuetako emakumeentzako adibide bikainak dira.

Eta hirugarren atalean, zer irakurriko dugu?

Buscando senderos pasartearen bitartez, gure barnera bidaiatzeko gonbitea egiten digu Leondik etorri eta Ortuellan lekutatutako Carmina Villalba Ayuelak. Emakumeok horrenbeste bider amestutako, desiratutako eta aldarrikatutako mundu librearen bila

joatera animatzen gaitu berak. Hausnarketa anitzen bitartez, pentsamenduak eta emozioak helarazten dizkigu Carminak; balio psikologiko handiko deklarazio subjektiboak dira horiek denak. Berbon bitartez, pertsonen barrunbeetara heltzea lortzen du. Bere ustez, emakume bakoitzaren barruan hasi behar du inguratzen gaituen mundua eraldatzeko bideak.

Zelan sortu zen liburua idatzeko ideia?

Esan daiteke nik neuk animatu egin nuela parte-hartzaileetako bat idazten dituen kontakizunak ezagutzera ematen. Ideia horri buelta batzuk eman ostean, zerbait zabalagoa proposatu zigun berak; Marivi, Carmina eta hiruroi proiektuan parte hartzeko gonbitea egin zigun. Ez genion ezezkorik eman... Horrela sortu zen horren liburu eder hori.

Zeintzuk dira *Mas alla de una sola voz* argitalpenaren helburuak?

Erbestearen arazoa eta emakumezkoen bizitza laborala zein konpromisoa ezagutzera ematea izan da gure helburu nagusietako bat. Funtsezko ideia bat transmititu gura dugu *Mas alla de una sola voz* liburuaren bitartez, eta horren inguruan hausnarketa egin emakumeon ikuspuntutik.

Esan daiteke liburua emakume askok osatzen duten ahots bakarra dela?

Zera esatea da: «Emakumeok bat eginda, konpromisoan eta borrokan».



Parte hartu duen emakumeetako batek ondoko galdera egiten du: «Daukazuna uztea merezi du abentura bati ekiteko?»

Horixe da emigrazioaren, deserriaren edo zure bu-ruari ezarritako erbestearen ezbaia! Norbanakoen sexuari erreparatu barik, bizitza, berez, abentura hutsa da. Arazoa da emakumeoi, askotan, partidarren alderik gogorrena eta ilunena bizitzea tokatzen zaigula; beste gizarte batez eta horren arauakaz topo egitea, alegia. Hala ere, emakumeak bere herrialdean bizi dituen arazoak (matxismoa, hezkuntza-gabezia...) nahikoak eta soberakoak izaten dira batzuetan, benetako ihesaldia den bidaiari ekiteko.

Zer arrazoik behartu dituzte emakume horiek zeukaten dena uzten?

Arrazoi asko eta asko daude; emakume bakoitzak bere arrazoiak edukiko ditu horrela jokatzeke. Hala ere, bat bera ere tintontzian ez uzteko eta garrantzitsuenak ez ahazteko, liburuak irakurtzea gomendatuko nioke jendeari.

Emakume horiek erakutsi duten ausardia aldarrikatzeko modu bat da liburuak?

Biziki eskertzen dizut galdera hau egitea; horixe bera goraiatu gura dugu gure liburuan.

Baita euren inkonformismoa goraiatzeko ere?

Bai, baina albistegiei arreta jartzen badiezu gizakimultzoak dira euren herrialdeetan bizitzen dabilzan

basakeriaz ihes egiteko mugitzen direnak. Gizonek zein emakumeek alde egiten dute langabeziaren, krisialdiaren, gerren, obskurantismoa dakarten estatu-kolpeen, hilketen, bortxaketan... eraginez. Baina, beti ere emakumezkoak sufritzen du gehien; bidegabekeria eta tirania bere hezur-haragian pairatzeko arriskuan dago.

“ Patua ez zaigu bidera irtengo emakumeoi; guk geuk bila joan behar dugu, amore eman barik lan eta lan eginez ”

Zertan datoz bat liburuari ahotsa jartzen dioten emakumezkoak?

Elkarrizketaren hasieran esan dudan moduan, oso ondo bereizitako hiru atal dauzka liburuak. Lehengo kapituluaz berba egiten badugu, emakumezkoek erbestean eta harrera-herrialdeetan ere diskriminazio bera sufritzen dute. Bigarren atalari dagokionez, emakume denak txiletarrak dira; denek ematen dute euren eguneroko bizitzaren testigantza, euren herrialdeetik bertatik abituta. Bakoitzak bere berezitasunakaz, euren bizitzeko eta kultura egiteko moduak adierazten dituzte, herrialdea aurrera egin

eta garatzeko katearen beste begi bat direla aldarrikatuz. Azkenik, hirugarren atalean, bere ikuspuntutik iritziak plazaratzen dituen emakume bat aurkituko dugu, bere helburua hausnarketa piztea da. Berak gai bat hartu, eztabaidan jarri eta disezionaltzen du, eta horren gainean pentsamendu pedagogiko oso bat eraikitzen du.

Zer aldarrikatu gura duzue *Mas alla de una sola voz* libururen bitartez?

Batez ere munduan bizi diren lagunen erdiaren errealitate ikusgarria eta ikusezina mahaigainean jarri gura ditugu, dagokionak erreparatu diezaien.

Lucy, zuk bizitakoari dagokionez, zerk behartu zintuen zure jaioterria uztera?

Euskaldun batez ezkondu nengo ni; 1936ko gerran, Bilbo erori ostean, bere aitak alde egin behar izan zuen Txilera, *Winnipeg* ontzian. Pablo Neruda idazleak berak Frantziatik kudeatutako itsasontzi horretan bi mila errepublikazale inguruk ihes egin zuten Francoren tropengatik, eta Txileko hainbat tokitan lekutu ziren. Handik urte batzuetara, estatu kolpea eman zuen Pinochetek, eta, senarrari mehatxu egin ostean, familiako denok alde egin behar izan genuen erbestera.

Luzea izan zen Gorkizera heldu arteko bidaia?

Luze antzean. Barakaldora bizitzera joan ginen lehendabizi, gero Portugaletera, eta ondoren San Inaziora. Baina, daborduko ia 30 urte dira Gorkizen bizi naizela; nire ustez, Euskal Herriko poesiaren itsasargia da Gorkiz.

Harrera ona eman zizuten gorkiztarrek?

Kar-kar. Bertan nintzenik ere ez ziren konturatu. Orain ezagunagoa naiz poesia egiten dudalako. Euskal eta txiletar poeten arteko bitartekari ere banaiz; bost liburu plazaratu ditugu beste horrenbeste urtetan. Gainera, errezitaldiak eta poesia-emanaldiak egiten gabiltza beti; eta herriko jaietarako poemabildumak aurkezten ditugu.

Gorkizen ere emakumeen eskubideen alde borrokan jarraitzen duzu?

Poesiagaz adierazten ditut nire aldarrikapenak.

Eta ozeanoaren bestalde honetan, zer gabezia topatu dituzu?

Egia esan, ez dut gabezia handirik sumatu; nire herrialdean, ostera, gabeziek kolpatzen dituzte kolkoa, sabela, osasuna, berba... Hemen ez dago alderik nire jaioterriak egunero bizi dituzten egoerakaz.

Hemen, libreago sentitzen zara?

Erabat. Baina, arimari dagokion kontua da askatasuna. Esan diezazuket, harrokerian jausi barik, latitude bietan sentitzen naizela libre.

Zer mezu helaraziko zenieke emakumei?

Etorkinei zera esango nieke: borroka ez da amaitzen jatorrizko herrialdeak uzten ditugunean; berriz hasi baino ez da egiten beste latitude batzuetan, hartzen gaituzten herrialdeetan. Gainontzeko emakumei, ostera, bereizten gaituen bizitasuna eta bultzada ez galtzeko eskatu gura diet. Patua ez zaigu bidera irtengo; guk geuk bila joan behar dugu, amore eman barik lan eta lan eginez. ◀



Nazioarteko errugbia, Faduran

Uruguako selekzioa, *Los Teros* ezizenez ezaguna, pasa den domekan heldu zen Loiuako aireportura, Japoniatik. NABURU 38

Uruguako errugbi selekzioak Fadurako zelaian jokatu du domeka honetan. Lagunarteko partida horretan, Euskarians euskal selekzioa izango du aurrean.

U ruguako errugbi selekzioko gizonetako Munduko Kopa prestatzen dihardute eguntan Algortan. Izan ere, Kopa irailaren 18an hasiko da Londresen. Talde hegoamerikarra Getxon egongo da kontzentratuta irailaren 13ra arte, eta egun horretan, Ingalaterrara bidaiatuko du mundialaren lehenengo fasea jokatzeko. Fase horretan, Inga-

laterrako, Australiako, Galeseko eta Fijiko selekzioen aurka jokatu du. Prestaketaren zati legez, Japonian bira egin du Uruguak, Euskal Herrira etorri aurretik. Hemen, Euskariansen aurka jokatu du domekan, irailaren 6an, arrastiko 05:00etatik aurrera, Fadurako *bonboi-kutxa*-n. Euskal Herriko taldean Iparraldeko eta Hegoaldeko 28 jokalarik daude deituta, tartean

Getxoko Iker Lavin eta Unai Aranguren. Euskal selekzioak pasa den astelehenean izan zuen entrenamendua batera egiteko aukera, Urruñan (Lapurdi).

Euskarians-Uruguai lagunarteko partida ikusteko sarrerak bost euroan daude, 18 urtetik gorakoentzat. Adingabeentzat, berriz, sarrera doakoa da.

Uruguako 20 urtez azpiko taldeak ere egonaldia egin zuen Faduran, pasa den maiatzean. Orduan, teknikari uruguaitarrek Getxo aukeratu zuten selekzio osoak bere maila neur zezan. Uruguai munduko 20 selekzio one-

nen artean dago sailkatuta. Teknikari uruguaitarren ustez, Getxon batzen egingo diren selekzioen arteko lehiaketa nagusia prestatzeko baldintzarik onenak. Horrela, Uruguak Irlandako taldeari jarraitu dio; hark ere, 2003an Getxo hautatu baitzuen urte hartako Errugbiko Munduko Kopa prestatzeko. Alvaro Gonzalez Getxoko Kirol zinegotzia pozik agertu da: «Maila horretako selekzioa gurean egoteak gure taldeei ikasteko aukera paregabea eskaintzen die, eta gure udalerrian errugbirako dagoen zaletasun handiaren aitortze-rena ere bada, gainera». ◀

San Pedro eta Batera, nagusi Erandioko uretan



Arkoteko Beteranoak Batera talde plentziarra, garaipena ospatzen Erandion. © JORGE MADARIAGA

Erandioko bandera jokatu zen pasa den zapatuan Ibaizabalen. KAE-2ko probaren lehenengo txandan zegoena arreta handiena, San Pedrok eta Castrok jokoan baitzuten KAE-1era igotzeko play-offaren lehenengo erronka. San Pedrok bandera

irabazi zuen, baina hurrengo egunean play-offa galdu zuen, Hondarribian. Beteranoen Ligan, plentziarrak nagusi ziren, lidergoa erabat sendotuz. San Juanentzat izan da, berriz, Euskotren Liga; han egiten du arraun Ondiz Lekubarri getxoztarrak. ◀

Goi-mailako itsas ikastaroak, Abrako klubean



Artako ontzia. © ABRACO ITSAS ERREGE KLUBA

Zapatutik irailaren 11ra, goi-mailako ikastaro trinkoak izango dira Abrako itsas errege-klubean. Besteak beste, honako hizlariak izango dira: Gisela Pulido katalana, Munduko kitesurfeko txapeldunik gazteena; Iker Martinez nabigatzaile gipuzkoarra, Munduko eta Europako txapelduna, eta urrezko domina olinpiko baten irabazlea; eta Maria Alabau RSX mailako windsurf txapeldun olinpikoa. Bestalde, Abrako klubeko Artako ontziak Atlantiko Uharteen Estropada irabazi du O Groven, Galizian. ◀

Virginia Diaz, arraun olinpikoko mundu lehiaketan



Onenakaz neurtuko da Diaz. © RASPAS

Virginia Diaz Areetako Raspas arraun-elkarteko kirolariak ekin dio arraun olinpikoko bere lehenengo Munduko Txapelketa Absolutuari. Proba pasa den domekan hasi zen, eta hurrengoan amaituko da, irailaren 6an. Aiguebelette lakuak hartu du mundiala, Frantziako ekialdean. Diaz banakako skiffean (1X) lehiatuko da. Arraun olinpikoko Espainiako Txapelketa ekainean amaitu zenetik, Diaz Estatuko selekzioagaz egon da kontzentratuta, Sevillan eta Banyolesen (Herrialde Katalanak). ◀

Goiherri, txapel europarren bila



Goiherri 560, 600 eta 680 kiloko EAEko txapelketetan nagusitu da aurten. © GOIHERRI

Europako Lur Gaineko Sokatira Txapelketa jokatu da eguenetik domekara, Belfasten (Ipar Irlanda). Bertan, klubentzako atalean, Goiherri elkarte erandioztarra izango da lehian, Laukizko Gaztedi eta Gipuzkoako Mutriku taldeak batera. Denera, euskal delegazioak 93 pertsona eroan zituen pasa den martitzenean Irlandako Sei Konderriko hiriburura, Belfastera. Horietatik, 29 kirolarik Goiherri bidaiatu zuten. Halere, Gaztedi da euskal talderik jendetsuena 49 pertsonagaz. Azkenik, Mutrikgaz 12 joan ziren, eta hiru epaile euskal herritar ere han dira, Nazioarteko Sokatira Federazioarentzat (TWIF) lan egiteko: Jose Antonio

Uriarte, Juan Miguel Ranero eta Jose Mari Markaida. Goiherri 560 kilokoan jardungo du eguen arrastian, eta 640koan, bariku arrastian; biak, gizonetakoak. Zapatuan eta domekan, ordea, *Basque Country* taldean lehiatuko dira.

Aurreko Europako Lur Gaineko Sokatira Txapelketa 2013an jokatu zen, Holandako Assen herrian. Harrezkero, aldaketa garrantzitsua izan da sokatiraren munduan: 2014ko uztailaren hasieran Euskadiko Herri Kirol Federazioak TWIFeko eskubide osoko kide izatea lortu zuenez, Euskal Herriko sokatira-taldeak aurten *Basque Country* ordezkatzuz lehiatuko dira lehenengo aldiz Europako txapelketa batean. ◀

Idi- eta asto-probak, zurrunbiloaren erdian

Pasa den abuztuan, hainbat gertaerak animaliak darabiltzaten herri-kirolei eragin diete. Hilaren 6an jakin zen euskal erakundeak, idi-probetako lurralde federazioak batera, arautegi berri bat lantzen dabiltzala idi-probetan dopin-azterketak hobetzeko. Arantxa Tapia Eusko Jaur-laritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak eman zion horren berri, idatziz, Eusko Legebiltzarrari, PPK egindako galderari erantzunez. Izan ere, Erandiogikoko iazko jaietan drogatutako idi biren heriotza Kultura Batzordean aztertu zen, pasa den otsailean, eta bertan EAEko

Herri-kirolen arduradunek eskatu zuten arautegia berritzea eta bitarteko gehiago ematea. Ildo berean, aurtengo abuztuaren 14an, PACMA alderdiak salatu zuen aste akabu horretan iazkoak bezalako idi-probak izango zirela Erandion, nahiz eta Erandiogikoko jaien egitarauan aurten horrelakorik ez egon.

Bestalde, Esnatu Leioak salatu du animaliei «tratu txarrak» eman zaizkiela Santimamiko idi-probetan eta San Bartolomeko asto-dematan. Elkarretaratze bana egin zuten. Internet bidezko sinadura-bilketa hasi dute. ◀

info+: <http://ttiki.com/341122>



San Bartolomeko asto-probetan, aldeko eta kontrako batzuek liskarra izan zuten. © JOSU ASTRAIN



© BILBAO BASKET

Beltzeko gizonak Gorlizen izan ziren pasa den eguaztenean, abuztuak 26. «Entrenamendu gogorra» izan zuten hondartzan Tobias Borg, Alex Mumburu, Raul Lopez, Georgios Bogris, Alex Suarez, Alex Ruoff, Shawn James, Borja Mendia eta Clevin Hannah Bilbao Basketeko jokalariek.

Castroviejo, Poitou-Charentes birako podiumean

Jonathan Castroviejo Movistar taldeko txirindulari itzubaltzetarra hirugarren sailkatu zen pasa den barikuan Poitou-Charenteseko Tourrean, Frantziako mendebaldean. Lau etapako probaren garailea Tony Martin alemaniarra izan zen. Atzean, Adriano Malori italiarra bigarren geratu zen, Martinengandik 37 segundora, eta Castroviejo taldekidea baino segundo bat gutxiagora. Hirugarren etapan, erlojupekoan, itzubaltzetarrari ihes egin zion lehenengo postuak. Halere, Castroviejok garaipena ospatu ahal izan zuen, Movistarrek taldekako sailkapen orokorra irabazi baitzuen. ◀

Gorlizko III. Herri Kroserako izen-ematea zabalik

Gorlizko Udalak antolatuta, hilaren 13an, domeka, Gorlizko III. Herri Krosa Eliz plazatik irtengo da. Ibilbideak bost kilometro izango ditu herrian eta hondartzan zehar, berriro ere elizaren aurrean amaitzeko. Aukera dago buelta bakarra zein buelta bi emateko. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dituzte izen-ematea egiteko, beti ere Internetez eta aurreko eguna baino lehen egitekotan. Hilaren 13an ere egin ahal izango da, irteeran, 09:30etik 10:30era, baina bost euro garestiago izango da. Diru dena WOP Fundazioari emango diote. ◀

izen-ematea: kirolprobak.com

Txuri-urdirak, memoria eta irrika



lazo abenduan ekin zion klubak mendeurrena ospatzeari. © ERANDIO K. E.

Pasa den barikuan, abuztuak 27, Erandioko Kirol Elkarteak azken aurreko puntada eman zion klubaren mendeurrenari.

Altzagako jaietako giroa lagun, Obietako kaleak hartu zuen liburu berezi baten aurkezpena. Talde txuri-urdiraren erakusketa-gelaren aurrean, eta kirol-elkartearen bandera handiaren azpian, dozenaka lagunek jarraitu zituzten, interes handiz, *Aupa el Erandio, que es de Erandio. Historia de un centenario. 1915-2015* lanaren gaineko gogoetak. Bertan izan ziren, besteak beste, Joserra Maestro eta Luis Zubiaur «Erandioko historiaren zatitxo» horren egileak, Marina Garcia klubeko presidentea, Joseba Goikouria alkatea, Txema Montoya aurkezlea, eta azken hamarkadetako makina bat kirolari, zuzendaritza kide eta zinegotzi. Liburua 30 euroan eskura daiteke honako lekuetan: Zubitagarri eta Elorduy liburu-dendatan, Nerea Urdiain kioskoan, Koldo dendan eta Nieto tabako-dendan. Domekan, berriz, urteu-

renari amaiera eman zioten, Ategorri Sariaren 45. edizioaren bidez. Erandioko kluba erraz nagusitu zitzaion 3-1 Astrabuduko taldeari.

Futbol-eskola

Memoria gordeta, txuri-urdirnek etorkizunaren alde egin dute apustu. Hori dela-eta, aste honetan futbol-eskola-ko ume eta gaztetxoek gurasoak bazteari ekin diote arduradunek. Eguaztenean izan zen txanda 2006 eta 2010 bitartean jaiotako ama eta aitentzat. Eguenean, ordea, Bekoa ikastetxera joan beharko dute 2005, 2004, 2003 eta 2002koen gurasoek, 19:30etik aurrera, ordu erdiro eta hurrenez hurren.

Lagunartekoak

Bitartean, Erandioko lehenengo taldeak pasa den abuztuaren 17an ekin zion denboraldia prestatzeari, nahiz eta Bizkaiko Ohorezko Mailako lehenengo partida irailaren 20an izango duen, Elorrioren aurka. Urriaren 11n izango da derbia Apurtuartegaz. ◀

Lagun Artea futbol-eskolan ikasturtea, hasita

Pasa den astelehenean, abuztuak 31, entrenamenduak abiatu zituzten Leioako Lagun Artean futbol-eskolan. Egun horretan, 2004ko kimuen A taldeak estreinatu zituen instalazioak. Egun bi beranduago, berriz, 2002an jaiotako A eta B taldeei egokitu zitzaizen txanda, eta falta diren beste 30 taldeek irailaren 14an eta 15ean ekingo diote ikasturteari. Pasa den uztailaren amaieratik, bestalde, eskolak zuzendari berria dauka: Fernando Quintanilla *Txirri*. Loren Palomares eta Isusko Loroñoren laguntza izango du. ◀

info+: sdleioa.com/es/lagun-arte

Uribe Kostako 2.Bko derbia Gobelan biziko da

Zapatuan, irailak 5, Leioak Arenas bisitatuko du Gobelako futbol-zelaian, 18:00etan. Ligaren jardunaldi-biren ostean, gorri-beltzak taularen goiko aldean daude, bosgarren postuan, eta 4. puntugaz. Leioa, ordea, oraingoz taularen erdialdean dago, hamaikagarrenean, puntu bat gutxiagoz. Igor Gordobilin mutilek izerdiz blai jardun beharko dute, Gobelatik hiru puntuak ateratzea espero badute, gutxienez. Madrilgo Athleticok utzitako Nacho Buil erdilaria zelaira dezake estreinako Jon Perez *Bolo* Arenaseko entrenatzaileak. ◀

Leioaztarrak Athleticen aurka estreinatuko dira

Leioako Emakumeek ligaren Bigarren Mailan jokatuko dute estreinako aldiz domeka honetan, goizeko 11:00etan. Lehenengo partidarako, zorteak derbi bizkaitarra oparitu die Egoitz Linazaren jokalariei. Athletic B taldearen aurka jardun beharko dute, Lezaman. Uribe Kostakoek badakite zer den partida hori jokatu eta galtzea, eta fresko dute gogoan, gainera. Izan ere, talde biek pasa den abuztuaren 26an jokatuko zuten lagunarteko norgehiagoka, Sarriengan. Zuri-gorriak nagusitu ziren 1-2. Leioaren gola Landak sartu zuen. ◀

Berango futbol taldea neska jokalarik bila dabil

Berango futbol-taldeak kanpaina berria ipini du martxan emakumeen taldea sendotzeko. Izan ere, klubak gizonezko hamar hamaikako ditu, 168 fitxagaz, eta neska-talde bakarra, 14 jokalariz osatua. Emakumeek Bizkaiko lurraldeko 1. mailako 1. taldean jokatzen dute, eta gertuko arerioak dituzte, barbarako: Leioako Emakumeak B, Erandioko Betiko Neskak B, Bizkerre B eta Ugeraga. Lehenengo partida urriaren 11n jokatuko dute, Santutxun. Interesa dutenak telefonoz lotu daitezke jokalariekaz. ◀

info+: 665 747 979 (Oihane)

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



Iñaki
Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

Jarrai
gaitzazu:



hirukaEus



@hirukaEus

www.hiruka.eus

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

						5		1
2		7						6
	8			1		9		
								8
	9		8		6			
		4		7	3			
	3	1		2				5
					7			9
		9			8	2		7

4		1	3					8
					2	7		1
				8		2		
	7		2		1		4	
			9					
6				5			1	
		2		3				
	3	6			9			
		8				6		

Soluzioak

7	4	2	8	3	1	6	5	9
4	2	6	7	9	5	8	2	3
5	8	9	4	2	7	3	1	6
8	6	4	9	7	3	1	5	2
1	3	4	8	5	6	7	2	9
3	7	5	2	4	1	6	9	8
5	8	6	7	1	4	9	2	3
2	1	7	3	9	5	4	8	6
9	4	3	6	8	2	5	7	1

7	9	6	8	2	5	1	4	3
1	3	6	8	2	9	7	4	5
5	4	2	6	3	7	1	8	9
9	7	1	6	3	5	2	4	8
2	1	6	3	5	9	1	2	7
9	7	6	3	7	4	8	5	1
3	7	9	2	6	1	8	4	5
6	9	7	1	8	5	2	3	4
8	5	3	4	9	2	7	6	1
4	2	1	3	7	6	5	9	8

8	5	6	7	2	1	9	4	3
5	1	6	8	4	7	2	3	9
6	2	8	3	5	7	1	9	4
7	8	6	5	1	9	4	3	2
4	8	6	9	2	7	3	5	1
1	5	2	8	4	3	9	6	7
2	7	5	4	9	8	3	1	6
8	6	4	1	3	5	2	7	9
9	1	3	7	6	2	5	4	8

		3	7			5		
8			1				7	
2	5				8	3		
				4		9		7
	3			7				
8	6						3	
2								4
9								3
		7		2		6		

Horoskopoa

Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)
Aurretik, kopetillun zerbiltzan sargoria zela-eta. Orain, freskoa eta zirimiria ere, gusturik ez. Ar-gitu egizu zeure burua!

Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)
Lantzean behin, medikuarengandik pasatzea ez dago soberan. Hortaz, ez izan umea, eta ez atzeratu kontua.

Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)
Irrika zabilta, SGAEko kobratzailea baino gehiago, hurrengo makrokontzertua non eta noiz izango den jakiteko. Desintoxika zaituzte!

Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)
Bidaia etortzean, konturatu zera gertukoentzako oparirik ez duzula hartu? Lasai egon; maite bazaituzte, ez dira arduratuko.

Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)
Zortea ekar diezaiokezu lagun bati. Zehazki, zure laguntzaren zain dago 1.000 euroko balioa duen saria lortzeko. Pista gehiagorik behar?

Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)
Eskailerak gora zoazela, behin baino gehiagotan solairuz erratu zara zeure buruari bueltaka eta bueltaka zaudela. Pentsatu duzu txirrina jotzea?

Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)
Uda osoa elkarregaz eman ostean, maitasun handia hartu diozu, baina zuk zeuk bazenekien harremana ez zela luzea izango. Esan agur bizikletari!

Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)
Katuen arteko elkarreragina nepertarra denez, bat baino gehiago aterpetuz gero, esku franko beharko duzu etxea bakean izateko.

Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)
Argi dago ez zarela lehen bezain gazte; baina, umore ona, bizitzeko grina eta lagun-kuadrilla badiuzu, nori axola dio horrek?

Meta
(Irailak 17-Urriak 16)
Herri-langileak alferrak direla eta horiek kalera-tu beharko liritekeela dioenari gogoraz egiozu suhiltzaileak ere funtzionarioak direla.

Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)
Zentimo bat eskuratzeko makurtzen ez denek ez dezala pentsa billeteak oinetara tropelean etorriko zaizkionik; ezta pentsatu ere!

Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)
Oraindino garaian gaudenez, tomate goxoak topa daitezke inguruko ekoizleen ortuetan. Baliatu aukera, eta gogoan izan kalitatea ordaintzen dela.

Zorion agurrak

Urtebetetzea, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



ITXASO
ITZUBALTZETA
Lagunen partez

Zorionak, potxoli! Egun ederra igaro ezazu hogeita guztiak ospatzen! Urteak pasa ahala, gero eta politago zaudete! Muxu handi-handi bat!



JESUS
GETXO
Familia eta lagunen partez

Zorionak, txabalote!!! Aprobetxa ezazu urte hau a tope, hurrengoan jada ez baitzara hain gazte izango. Ondo baino hobeto pasa eguna. Musu pilo!



ZIORTZA
URDULIZ
Familia eta lagunen partez

Zorionak, Ziortza! Primerako eguna pasa ezazu 29ak ospatzen! Etxetik urrun zaitugu baina badakigu Ekuadorren ere ederki pasako duzula, musu pilo!



Mende erdiz Areetan, euskal giroaren akuilu

Areetako Berantzagi dantza-taldea 1964ko urrian sortu zen, Santi Marinen ekimenez. Orduan, garrantzi handia zuen Falangek herrian. Orain, taldea 50. urteurreneko ekitaldiak ospatzen dabilela, Areetan euskal kulturaren eta euskararen legamia-lanak egin izanaz harro daude.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA



Jose Antonio Sellan *Txato* Berantzagiko kide historiko eta gaur egungo zuzendari denak esaldi batean laburbildu du dantza-taldearen historiak eragiten dion sententzia: «Harro nago, Areetan ez du arrakasta lortu Falangek, eta bai, Berantzagik».

Izan ere, taldearen sorreran bezain emankorra dirudien garaian sartu da azken 18 hilabeteotan Berantzagi. Gaur egun, 80 bat lagun dabilta, eta lau talde finko dituzte: txikien mistoa, nesken taldea, mutilena eta emakumeena. Horiez gainera, laguntzaile asko eta giro ederra dago elkartearen. Dantzaz aparte, bestelako atalak ere osasuntsu dabilta: mendi-taldea, bertoko musika-tresnen batzordea, azken 31 urteotan Areetako Olentzero dinamizatu duen atal soziala, tabernariakaz batera lau Gazte Azoka antolatu dituena, eta abar. Tailerrak, triki-poteoak eta menditxangoak ederto baliatu dituzte, taldeko jendea mugitu eta elkarregaz ondo pasatzeko, Berantzagin giro ona egon dadin. «Eta lortu da, orain kristoren giro ona dugu. Odol berria sartu da, eta gauzak onerako aldatu dira zeharo», azaldu du Sellanek: «Taldea nik beti izan gura dudana legez dago, baina aspaldi ez nuen horrela ikusten. Bagoaz denok batera, txikiak, gazteak, helduak eta jubilatuenak. Gozatu behar da denboraldi hau, beste batzuetan hil-hila topatzen baituzu egoera. Izan ere, Areeta gune oso gogorra da lantzeko. Beti egon da mugimendua, baina 51 urtean normala denez, gorabeheratsua izan da, nahiz eta talde dinamizatzaile bat izanda beti atera garen aurrera». Era berean, azken boladan hainbat ekimen egin dituzte 50. urtemuga ospatzeko: «ikuskitzuna, gazta-tailerrak, txosnak... apur bat denetarik egin dugu. Orain zozketa bat egiten gabilta, dirua ateratzeko, premia gorrian baikaude, eta lokaletik botatzeko arriskua hor dagoelako, ordaintzeko ez baitzaigu heltzen». Baina ez gaitezen aurreratu, eta hasieratik kontu dezagun historia...

Berantzagiren sorrera

Santi Marinek Areetako Ondarrak elkartera jo zuen 1964ko uztailean. Itzubaltzeta/Romoko Zasi-Eskola dantza-taldeko prestatzaile zen Marin, eta bere herrian lokal arazoak zituela esanda, Ondarrak zera-bilen Gizarte Etxean entseguak egitea eskatu zien. Orduan ezagutu zuen *Txato* Sellan. Trukean, jotak

erakusten hasi zitzaion Marin. Irailean, ordea, Marinek Zasi-Eskolagaz harremanak apurtu zituen. Hurrengo pausoa izan zen, urrian, Areetan talde bat sortzea: Berantzagi. Orduan hartu zuten izena; Fernando Hiribarnegaraik Nafarroako euskararen gaineko liburu batean topatu zuen, eta egundoko barrean egin zituzten «mukieria» esan gura zuelakoan. Gerora jakin zuten legamiaren sinonimoa zela. Armarria ere orduan asmatu zuten, eta ez da aldatu, baina 'Hondarreta' barik, orain 'Areeta' dute jarrita.

Hurrengo bizpahiru urteetan dantzak ikasten eman zuten denbora, kanpora dantzatzera atera aurretik. 1967an, taldea osaturik zegoen, eta Larra-betzura irten ziren autobusez: bertan dantzatu eta herrixka-giroagaz oso ondo pasatu zuten. 1969an, Areetan dantzatu zuten lehenengo aldiz, Eskoletako Plazan, eta hurrengo urtean, aurkezpen ofiziala izan zen Irlandesas ikastetxe zaharrean. Orduan, hainbat guraso animatu ziren, eta hortik Urdulizko Buztan Erregosiaren txapelketara irten ziren, eta bakailao

**“ 1970ko hamarkadan,
100 lagunetik gorako taldea
genuen Areetan, kristoren
indarra geneukan ”**

txapelketetara, jaietara... Dantzari Egunak ere bata bestearen ostean bisitatu zituzten, baina Berantzagi ez da askotan irten: Herbeheretan birritan egon dira. 1970ko hamarkadan, «100 lagun baino gehiagoko taldea genuen Areetan; kristoren indarra geneukan. Garai hartan modan zegoenez *vasquito* izatea, arkakusoak eta guzti zetozen gugaz. Eta laguntasun handiak sortu ziren han», azaldu du Sellanek. Era berean, taldea pizgarri izan zen euskal munduan, eta Hiribarnegarai eta beste dantzariak euskara-kla-seakaz hasi ziren, eta horrek bultzatu zuen Areetan beste pauso batzuk emateko, eta, geroago, Gobela ikastola sortzeko. Baina urte haietako giroa ere bestelakoa zen, kaikua janztea bera errepresiorako arrazoi izan zitekeen. Behin, dio Sellanek, Marin eta bera behin-behinean atxilotu zituzten, erakustaldi batean arropa berdea, gorria eta zuria batera janztea-



ARGAZKIAK: BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA
GETXOKO LIBURUTEGIAK / BERANTZAGI / IÑAKI ZELAIA

gatik. Urteakaz giro hura aldatu egin zen, onerako zein txarrerako. Izan ere, Ondarrak elkartearen su amatatzen joan zen, eta 1980 aldera desagertu egin zen. Orduan, Berantzagi geratu zen bakarrik Gizarte Etxean, eta apaizekiko tentsioa isiotu zen. Marinek eta berak «eraikina zutunik mantendu» zutela dio Sellanek, «sutea emateko zein uriolak sortzeko ahalginak izan baitziren». Bere ustean, apaizek «nahita eragindakoak, handik botatzeko». Horren kontura, sesioak izan zituzten orduko apaizagaz. Baina Barquin alkate zela, berak konpondu zuen afera, Areetako azokako bigarren solairuan utzita zegoen Spar supermerkatua eskatu zioten, eta horretarako baimena eman eta garbiketaz arduratu zen Udala. Eugenio Gandiaga Kultur Etxeko zuzendari izendatu zutenean, ordea, banatu egin zuten lokala, eskaera gehiagaz baitziren, eta erdiagaz lotu zen Berantzagi.



Aitzindariak

Berantzagi dantza-taldea 1964an sortu zenean, ia zerotik hasi ziren Areetan, Santi Marinek Itzubaltzeta/Romoko Zasi-Eskola taldetik ekarritako ezagutzagaz. Hala ere, gaur egun, argi dago aurretik euskal dantzak tradizio zirela XX. mende hasierako *Hondarretan*, gaurko Areetan. *Txato* Sellanek dioenez, talde hartan Areetako hainbat sendi zeuden: urrestitarrak, basagoitiarrak, peñatarrak... eta Zugazarte izena zerabilteela uste du. 1928an jardun zuten Areetako Gizarte Etxearen inaugurazioan, eta 1930eko argazki bat dago. Gerraren ostean, Leioako Ibaiondo auzoan Dantzari Eguna egin zela dauka gogoan, 1952-1954 aldera, ustez Zugazartek antolatuta. Seguru asko, orduan katea eten egin zen 1964ra arte. Sellan ahalegindu da antzinako dantzarien senideakaz argazki eta dokumentazioa lortzen, arrakasta txikiz, «herriaren historia baita».



Lokala eduki arren, oster, harreman pertsonalak okertu egin ziren, eta *Txato* Sellanek taldea utzi zuen 1990ean. Jende gehiago joan zen; taldea indarra galtzen joan zen, eta, azkenean, Santi Marinek alde egin zuen. Orduan, Eugenio Gandiagak materiala gorde eta inbentarioa egin zuen. 1990eko irailean, hainbat kide ohi batuta, Berantzagi berpiztu zuten, Sellanen agindupean. «Izena aldatzea pentsatu genuen, baina zorionez ez genuen egin» dio Berantzagiko zuzendariak. Kostata, baina aurrera egin eta dantzan jarraitu zuten. Santi Marin, berriz, 20 bat urte beranduago zendu zen. Garai berean, orain bost bat urte, Getxoko Udalak komunikatu zien Areetako liburategiko eraikinetik «alde egin behar genuela», Elkartegia egiteko. Orduan, Gobela kiroldegira «bidali gura izan gintuzten, baina hango lokalak ikustera joan nintzen, eta munduan ez dago bertan entsegua

egin dezakeenik, lekurik ez baitago. 60 pertsona sartu nahi gintuzten 20 metro koadroko bulegoan. Zorakeria hutsa! Ez genuenez onartu, botata utzi gintuzten», kexu da Berantzagiko ordezkaria. «Geure kasara moldatu behar izan genuen, eta Artekaleko lokala aurkitu genuen. Garai hartan dirua bagenuen, 27.000 euro, eta orain miserian gaude». Udalak, 1.200 euro ematen dizkie urtean, lokal horretako gastuetan laguntzeko, «baina gastua 12.000koa da». Beste aldetik, orain dela urte batzuk, kultur elkarte denei bezala, Udalak %20ko murrizketa ezarri zien. Denera, 4.000 euro jasotzen dituzte. Aurten, dirulaguntza atzeratzen ari da, eta azken hilabeteotan alokairua bazkideen poltsikotik ordaintzen dabiltzala dio. Baina Udalak proposatzen dien alternatiba ere ez du gustuko: «eskaini diguten konponbide bakarra Romora joatea da. Ez du zentzurik Areetako talde bat

50. urteurreneko egitaraua


Berantzagi ia zertan dabil mende erdia ospatzen, taldean ondo pasatzen eta euskal folklorea zabaltzen. Halere, urriaren 24ra arte luzatuko dute ekimena. Irailaren 26an, Areetako jaietako alardea egingo dute Leioako Gure Ohiturak, Itzubaltzeta/Romoko Zasi-Eskola eta Berantzagi taldeek. Urriaren 4an, oster, Getxo udalerriko talde denakaz alarde bateratua egingo dute Xake plazan. Hil erdialderako, argazki-liburua atera gura dute. Eta horrez gainera, Berantzagin dantzatu duten ehunka lagunek parte hartzeko festibala egingo dute urriaren 24an, taldearen jaiolekuan, antzinako Areetako Gizarte Etxean, gaur egungo Andres Isasi musika-eskolan; «Urtemugaren ospakizuna horrela amaitu gura genuke».



hara joateak. Getxo udalerrri eta herri bakar bihurtu gura dute, baina gu ez gaude ados, eta errespetatu egin behar da. Daborduko esan didate: 'ez bazarete jaitsiko, bizimodua atera beharko duzue, baina behin betiko'. Hortaz, Romoko Kultur Etxea martxan ipintzen dutenean, 1.200 euro horiek ere kenduko dizkigute». Bitartean, makina bat ekimen egiten dihardute zuloa handi ez dadin.

Etorkizuna

Lokalaren aferra eta estualdi ekonomikoa alde batera utzita, «etorkizun ona» ikusten dio Sellanek Berantzagiri. «Lehenengo eguneko gogo bera» izan arren, 66 urte ditu, eta 51, taldeari emanda, uste du bade-la erreleboaren ordua. «Jendeak arduraz erantzuten badu eta taldea aurrera botatzen badute, zama kenduko dut». ◀



Mundukatuak

Christian Lauro Rodriguez guatemalarra

«3.000 urtetik gorako hiriak ditugu Guatemalan»

Sortzez Guatemala Hirikoa da Christian Lauro Rodriguez, eta orain dela sei urte Algortara bizitzera etorri zen. «Inoiz ez nuen pentsatu nire herritik kanpo bizitzea», aitortzen du; hala ere, bere sorterrian Algortako emakume bat ezagutu, beragaz harremanetan hasi, eta «patuaren kontuengatik», gurera etorri zen bizitzera.

Zer bisitatu

Guatemala Hiriak ez du bisitari askorik hartzen, «indarkeria handiko munduko lehenengo 5 hiriburuen artean dago», argitzen duenez. Hala ere, hiriak hainbat bitxikeria ezkututzen ditu bere barnean, esaterako erdigune historikoa, garai kolonialeko eraikinez beteta; edo herrialdeko hiru dimentsioko mapa; 100 metroko diametroa du, eta Guatemalako ibai eta sumendi guztiak erakusten ditu; «orain dela

100 urte eraiki zuten, eta Google Earth egin zutenek mapa horren ingeniartzan oinarritu ziren».

Guatemala osoan milaka gauza bisita daitezke, «nahiz eta oso ezagunak ez izan». Interesen arabera, turismo et-

“Guatemalan, munduko piramiderik handiena aurki daiteke: La Danta”

nikoa egin daiteke: herrialdean 20 komunitate indigena baino gehiago daude. Era berean, turismo arkeologikoa da bigarren aukera, 3.000 urtetik gorako hiriak aurki daitezkeelako; berbarako, La Danta piramidea, «munduko handiena da; Egiptokoak horren barruan kabitzen dira, eta 3.000 urte ditu». Hango natura ere bisitatzeko

modukoa dela dio. Guatemalan 320 sumendi baino gehiago daude, horietatik 11, aktibo; «batzuek egunero egiten dute erupzio». Horren adibidea da Santiaguito: orduro lehertzen da.

Jan eta edan

Guatemalan artoa da oinarrizko jakia. Ogia jan beharrean, bertokoek opil txikiak egiten dituzte artoagaz, taloaren oso antzekoak. Era berean, ohikoak dira *tamala*-k edota *paches*-ak, haragiz edo frutaz beteta. Berezitasun bezala, bertan dena zerbitzatzen da plater bakar batean, «plater konbinatuen antzera». Halaber, frutetan aniztasun handia dute; urte osoan aurki daitezke askotariko frutak; «platanoetan, 6 mota ditugu». Edarien kasuan, ronaz eta tekilaz gainera, alkoholbako zuku asko dituzte, fruta zein haziakaz egingakoak, «eguneroko edariak dira, jatean zuku batek egon behar du». ◀

NOR DA

Nongoa

Guatemala Hiria (Guatemala)

Adina

39 urte

Zertan dabil

Sentsibilizazio-proiektuen teknikari, eta mendiko gidari.

Ikasketak

Informatika eta mendiko gidari teknikoak.

Noiztik Euskal Herrian

2009an etorri zen gurera. Guatemalan ezagututako neska-lagunarengatik erabaki zuten Algortara etortzea.

NONGO DA



Lurraldea

Guatemalako Errepublikak

Azalera

108.889 km²

Ingurunea

Guatemalako departamendua

Biztanleria

2.149.107

Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza ofiziala; hala ere, erdialdeko hainbat talde etnikok bigarren hizkuntzatzat jotzen dute. Halaber, maiatik datozen 20 hizkuntza baino gehiago daude, herri inguruetan erabiltzen direnak. Horrez gainera, hego-ekialdean xinca hizkuntza erabiltzen da. Atlantikoko kostaldean, Izabalen, berriz, garifuna hizkuntza afro-amerikarra ere entzun daiteke. Hizkuntz horiek guztiak aitorten ofiziala jaso zuten Bake Akordioan osten.

Dirua

Quetzal

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua